

DATORRENA

Nazioarteko lan banaketa,
behar-beharrezko kategoria ISIDRO ESNAOLA > 3


KOADERNOA

Epailleak, apaizak eta maitagarriak
Bolivian JOANA GARMENDIA > 21

2019ko azaroaren 30a | XIII. urtea • 648. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BIDEAN IKASIA, BIDEAN IKASTEN

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ANTTON ABADIA SARIA EMANGO DIO, EUSKARAREN ALDE ETA PAREKIDETASUNAREN BIDEAN EMANDAKO PAUSOEN AITORTZAN. IBILITAKOA ERREPASATU DUGU ARANTXA URRETABIZKAIAREKIN ETA IBILTZEKO DUENARI ERE TENTE ERREPARATZEN DIO, ZAHARTZARO ERREBELDEA ALDARRIKATZEN BAITU. > 22 Andoni CANELLADA | FOKU

**Mediku kubatarren kontrako
gurutzada** 04

**Uigurren atxiloketa masiboaren
filtrazioak sutan jarri du Txina** 07

**Hizkuntza aniztasuna eta garapen
iraunkorra** 12

**ASMR fenomeno, zentzumen
eztanda** 17

**Joxerra Garzia eta Andoni Egaña:
«Houston, arazotxo bat
daukagu»** 18

**Elkarrizketa: Arantxa
Urretabizkaia** 22

Guk sinesten zaitugu. Zuk? 26

Sarean 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Nazioarteko lan banaketa, behar-beharrezko kategoria
- 10 **Oier Gorosabel:** Gerriaren postura egokia pisua jasotzerakoan
- 11 **Iñaki Altuna:** Epe laburreko zurrumbiloan murgilduta
- 16 **Unai Gaztelumendi**
- 20 **Gorka Etxebarria Dueñas:** Euskaldunen inertzia zenbait (II)
- 21 **Joana Garmendia:** Epaileak, apaizak eta maitagarriak Bolivian
- 27 **Joxean Agirre:** Liburuak
- 27 **Nekane Zinkunegi Barandiaran:** Memoria selektiboa
- 30 **Itziar Elizondo:** Mugikorrarekin gora eta behera



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Nazioarteko lan banaketa, behar-beharrezko kategoria

AEBetako demokratek “New Green Deal” (Itun berde berria) aurkeztu berri dute. Egitasmoaren helburua ekonomia eraldatuz klima larrialdiari aurre egitea da. Izen horrekin Depresio Handia gainditzeko Roosevelt presidenteak proposatutako “New Deal” historikoarekin lotu dute egungo proposamena. Rooseveltn egitasmoarekin egin bezala, demokratek inbertsio publiko handien bidez ekonomia eraldatu nahi dute, lanpostu berriak eta ondo ordaindutakoak sortuz. Inbertsio publikoak baliatuko lirateke trantsizio energetikoa posible egiteko, “zero isuri” helburua lortzeko asmoz. Oso programa indartsua proposatu dute, lan eta bizi balditzen hobekuntza naturaren zaintzarekin lotuz.

Baina dena ez dira hitz politikak. Programak kontrako iritziak jaso ditu garatzeko bidean diren herrialdeetako hainbat eragileren aldetik. Kritikoek diote proposamenak ez duela kontuan hartzen nazioartean indarrean dauden ekoizpen eta hornikuntza kateak. Beraien ustez, oso posible da “New Green Deal” egitasmoak planteatzeko dituen helburuak lortzea AEBetan, baina, aldiz, hori beste estatuen kalterako izatea. Hau da, ekoizpen prozesuaren “alderdi zikinak” herrialde pobreetara eramatea gerta liteke: etxeko helburuak lortu besteen kontu. Kritikoek aburuz, programak kolonialismo eredu berria indar dezake, mendekotasun harremanak betikotu. Azken batean, kritikoek uste dute ezinezkoa dela estatu baten arazoak konpontzea beste estatuak kontuan hartu gabe. Klima larrialdia da adibide argiena, baina migrazioarena ere bada egoera horren adibidea.

Egia da munduan dena lotuta dagoela. Baieztapen hori inork ez du ukatzen, baina motz gelditzen da. Ez da soilik harreman sare batek dena lotzen duela, baizik eta hierarkia baten arabera antolatuta daudela harreman horiek. Estatuak, ekoizpen prozesuak, informazio kana-

lak... botere harremanen kate batean lotuta daude. Herrialde garatuenetan bizi garenok askotan ahaztu egiten dugu estatu guztiek ez dutela baldintza berdinetan lehiatzerik mundu globalizatu honetan. Ondorioz, ezkerreko proposamenek askotan ez dute kontuan hartzen indarreko nazioarteko testuinguruak ezartzen dituen mugak. Hori horrela, garatzeko bidean diren herrialdeetakoen begietara, proposamenok erabat inozoak dira.

Paradoxikoki, ezkerreko indarrek jaiotzatik bertatik izan dute bokazio globala. «Herrialde guztietako langileok, elkar zaitetzete!» aldarria abiapuntu hartuta, ezkerrek bere jarduera politikoa mundu mailako ikuspegia landu izan du beti. Globalizazioak bandera hori kendu zion ezkerriari eta orain arte ez da gai izan egoerari buelta eman eta ikuspegi alternatiboa lantzeko. Hutsune ho-

«Nazioarteko lan banaketa» kontzeptuak nazioartean ematen den botere harreman hierarkikoa agerian uzten zuen, eta, ondorioz, analisi edo proposamen orok kontuan izan behar zuen ezinbestean

rren ondorio kaltegarriak begi bistakoak dira: globalizazioaren galtzaileen haserre eskuin muturreko indarrek kapitalizatu dute. Herrialde garatu guztietan indartu dira. Herrialde pobreetan, aldiz, sekta erlijiosoak izan dira uzta jaso dutenak. Ibilbide horretan, ezkerrek berezko zituen kontzeptu garrantzitsuak galdu ditu, esate baterako, “nazioarteko lan banaketa”. Kategoria horrek nazioartean ematen den botere harreman hierarkikoa agerian uzten zuen, eta, ondorioz, analisi edo proposamen orok mendekotasun hori kontuan izan behar zuen ezinbestean. Beraz, bada garaia “berdinen arteko lehia” eta antzeko kontzeptuak behingoz albo batera utzi eta ezberdinen arteko harremanetan sakontzen hasteko. •

MANTALEN DIPLOMAZIA

Mediku kubatarren kontrako gurutzada Bolivian, Brasilen eta Ekuadorren

 **JENDARTEA** / Ainara Lertxundi

Medikuntza Kubaren ikur eta oinarri bilakatu

da Iraultzari esker. Estatuak lehentasuna eman dio bai mediku berrien formakuntzari bai ikerketari ere. Punta-puntako profesionalak trebatu ditu azken hamarkada luzeotan. Herrien arteko elkartasunari ere ateak zabaltzen dizkio. 1963ko maiatzaren 55 pertsonak osaturiko nazioarteko lehen osasun brigada bidali zuen Aljeriara. Hamabi hilabetez egon ziren herrialde afrikarrean.

Ia lau hamarkada geroago, 1999ko azaroaren 15ean, Fidel Castro Kubako Iraultzaren buruzagi historikoak Latinoamerikako Medikuntza Eskola (ELAM) zabaldu zuen Habanan. Bertan, ehun bat herrialdetatik heldutako 29.000 mediku trebatu dituzte ordutik. Urtero-urtero, 1.500 bekadun baino gehiago iristen dira uhartera bertan ikasteko.

2005eko irailaren 19an, Henry Reeve Brigada sortu zuen Fidel Castrok. Izurrite larri eta hondamendietan urakanak, uholdeak, lurrikarak-espezializatutako medikuek osatzen dute. Berez, urte horretako abuztuaren jaio zen, New Orleansko herritar eta agintariei Katrina urakanak eragindako hondamendiari aurre egiten laguntzeko asmoz. Aldiz, Ameriketako Estatu Batuek Kubako Gobernuak egindako laguntza proposamena baztertu egin zuten.

Geroztik, baina, hogeitaz bat naziotan egon da Henry Reeve Brigada, 3,5 milioi pertsonari laguntza medikua eskaini die eta 80.000 bizitzatik gora salbatu ditu. «Garatzeko bidean diren herrialde pobreetako he-

Brasil, Ekuador, Bolivia, El Salvador. Kubak herrialdeotan zituen mediku brigadak bertan behera utzi ditu, argudio desberdinak erabiltzen uhartearen kontra abian jarritako gurutzadagatik. 1963. urtetik, osasunaren arloko 407.000 profesionalak, horietatik 183.338 medikuak, esku hartu dute brigadetan munduko 164 herrialdetan.

rriek eta auzoek behar dituzten medikuak trebatu behar ditugu. Herri aberatsenetan ere, AEBetan kasu, milioika eta milioika afroamerikarrek, indigenek, haitiarrek, latinoamerikar jatorriko etorkinek ez dute osasun arretarik jasotzen. Horiek gure beharra dute. He-

riotzaren kontra borrokatzeko profesionalak prestatzen ditugu; hondamendiei eta ezbeharreri aurre egiteko bideak eta baliabideak daudela frogatzen ari gara; gizabanakoa hobea izan daitekeelako, gizabanakoa hobea izan behar duelako. Kontzientzi sozialean eta eti-

kan oinarritutako baloreak defendatzen ditugu. Mediku eta profesional kubatarrek biziaren alde egiten dute, bizia eskaintzea da guztion xedea», adierazi zuen Castrok Henry Reeve Brigada aurkezteko egitiko ekitaldian. Henry Reeve Kubako independentziaren alde borroka egin zuen iraultzaille estatubatuarra izan zen.

2018ko apirilean Habanan egin zen Osasunaren Nazioarteko III. Konbentzioan, Osasunaren Mundu Erakundearen zuzendari nagusiak, Tedros Adhanom Ghebreyesus medikuak, Kubako osasun sistema goraitatu zuen. «Munduan desparekotasuna eta pobrezia murrizteko eta izurriteak saihesteko ahaleginaren eredu da», nabarmendu zuen hitza

Bolivian zeuden mediku kubatarrei egindako ongietorria, Habanako Jose Marti aireportuan.
Yamil LAGUE | AFP



«Ez da onargarria gure medikuen duintasuna, profesionaltasuna eta altruismoa zalantzan jartzea. Beraien familien babesari esker, 67 herrialdetan ditugu brigadak»

hartu zuenean. 80 naziotatik heldutako 2.000 ordezkari baino gehiagok parte hartu zuten bilkuran.

«Mantala zurien diplomazia». Horrela ezagutzen dira Kubako osasun brigadak munduan zehar. Uhartearen diru-iturri garrantzitsuenetariko bat ere badira. Iaz 6.000 milioi dolar kobratu zituen guztira herrialdeak zerbitzu profesionalen truke, batik bat osasunarekin loturiko zerbitzu profesionalen truke.

ELKARTASUN EREDU

«1970eko maiatzaren 31n, 70.000 pertsonatik gora hil ziren Peruko Ancash departamenduan lurrikara baten eta ondoren egondako uholdeen ondorioz. Ezbeharra gertatu eta ordu gutxira, Kubak bost ospitale mugikor bidali zituen hondamendi naturalak sunsitutako bost probintzietara. Fidel Castrok berak eta beste 150.000 kubatarrek odola eman zuten, odol eskasia baitzegoen. Ez dut sekula ahaztuko herritar xume horien poza eta xamurtasuna mediku kubatarrek heltzen ikustean. Nekez elkar ulertzen zuten, kubatarren hitz egiteko modua eta doinua arrotza egiten zitzaien, baina maitasun lotura sendoak eraiki zituzten elkarren artean. Denboran aurrera eginenez, 1988an Nikaraguan bizi nintzen, Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandatariaren aholkulari gisa lan egiten bainuen Puerto Cabezasen. Bada, bertan zeuden mediku bakarrek kubatarrek ziren. Han egote hutsarekin hiltzeko arrisku bizia zuten, izan ere, Washingtonek bidali eta ordaindutako talde armatuentzat gerrako harrapakin ziren mediku kubatarrek. 1990ean, Managuan nengoela, seme

«Estatu batzuetan, osasun arreta eskaintzen zuten klinikak eta gaixoak medikurik gabe gelditu dira kubatarrek Brasil utzi ostean», azaldu du Rioko Unibertsitateko irakasle batek



Kubako presidente Miguel Diaz-Canel, Guantanamon. Yamil LAGUE | AFP



Eskuinean, Karen Longaric, Boliviako Atzerri ministro kolpista. J. BERNAL | AFP

txikiena gaixotu egin zitzailgun, belarrian infekzio bat hartu zuen. Lagun askoren elkartasun ekonomikoari esker, hainbat eta hainbat proba egin genizkion, baina inork ez zigun diagnostiko bat ematen. Ez genekien zer zuen. Medikubatar batek, ikusi orduko, infekzioak meningitisa eragin ziezaiokeela ohartarazi eta Habanara eramateko bidaia antolatu zuen. Bertako ospitalean sendatu zuten. Bost hilabete baino gutxiago zituen haurrak». Luis Varese Scotto poeta eta idazle perutar-italiarraren testigantza da, Cubadebate web orrialdean argitaratua. 24 urtez izan zen Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandatariantzako funtzionarioa.

«1995ean, Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandatari-tzan lanean ari nintzela, 12.000 errefuxiatu guatemalarraren itzulera antolatu genuen. Guatemalan geundela, urrutiko herrietara heltzean, mediku bakarrek kubatarrek ziren. Ez zegoen argi indarrik, ezta ia ur edangarririk ere. Guatemala-lako Mediku Elkargoak protesta egin zuen kubatarrek bertako medikuei lana kentzen zietelakoan. Handik urte batzuetara, zonaldera itzuli nintzen berriro. Bada, Quicheko herrixketan mediku kubatarrek jarraitzen zuten bakarrik, ez zegoen bertako medikurik. Eta 2016ko apirilean Ekuadorren egon zen lurrikararen testuinguruan ere, bertara iritsi ziren lehen 'atzerritarrak' kubatarrek izan ziren», nabarmentzen du Varese.

BOLSONAROREN MEHATXUAK

Urteetan, testuinguru eta garai desberdinetan herrialde askotan jardun duten osasun brigada kubatarren kontra egin zuen lehena Jair Bolsona-

roren Gobernu brasildarra izan zen. Iazko azaroan, Brasilen zituen 8.517 medikuei eta osasun arloko langileei uhartera itzultzeko agindua eman zien Kubak, Bolsonaro ultraeskuindarrak beraien aurka egindako adierazpenen ondoren. Osasun profesional kubatarren lan baldintzak salatu zituen Bolsonaro. Kubako Estatua langileon soldataren gehiengoarekin gelditzen zela eta «esklabo gisa» lan egiten zutela esan zuen. Osasun profesionalok soldata osotasunean kobratu ezean, agintera heldutakoan «Mediku gehiago» gizarte programa bertan behera uztearekin mehatxu egin zion Kubako Gobernuari Bolsonaro presidente izateko hauteskunde kanpainan.

Mediku kubatarrek uhartean dituzten senideekin Brasilen bizitzeko eskubidea zutela ere esan zuen Bolsonaro. «Familia banatuta, medikuak irrlara itzultzea derrigortu nahi ditu Habanak. Guk gure anai-arreba kubatarrek diktadura horrengandik askatuko ditugu. Presidente izendatzen bananaute, 'Mais Medicos' programa aldatu egingo dut. Beraien senideei ateak zabalduko dizkiet eta, egingo diegun errebalida gainditzeko badute, mediku gisa lan egiten jarraitu ahal izango dute», esan zuen. Handik bi asteira, hauteskundeak irabazi zituen.

Bolsonaroren jarrera gogorra ikusita, Miguel Diaz-Canel presidente kubatarrek herrialdeak «Mais Medicos» programan zuen parte hartzea eten egin zuen. «Ez da onargarria gure mediku eta osasun langileen duintasuna, profesionaltasuna eta altruismoa zalantzan jartzea. Beraien familien babes eta laguntzari esker 67 herrialdetan ditugu brigadak.



Afrikan, ebolaren kontra, Haitin, koleraren aurka. Hondamendi eta epidemia larrietan adituak dira. Henry Reeve nazioarteko brigadaren kideak Pakistanen, Indonesian, Perun, Txilen, Venezuelen... egon dira», goraipatu zuen Kubako Osasun Ministerioak.

“Mais Medicos” programa Brasilgo Langileen Alderdiko Dilma Rousseff presidente ohiak ipini zuen martxan, 2013an, osasun arreta herrialdeko eremu guztietara zabaltzeko, bereziki, medikurik ez zuten urrutiko herrixka indigenetara eta herri nahiz hirietako auzo pobreenetara. Medikuek brasildarrek ez dute leku horietan lan egiterik nahi oso urruti daudelako, pobreak direlako edo arriskutsuak direlako. “Mais Medicos” ekimenaren baitan, atzerriko 18.000 profesional heldu ziren Brasi-

lera, horietatik 8.517 ziren kubatarrak.

«Estatu batzuetan, doako osasun arreta eskaintzen zuten klinikak eta bertako gaixoak medikurik gabe gelditu ziren kubatarrek Brasil utzi zutenean. Atzerapauso nabarmena da. Diagnostiko goiztiarrak egiterik ez da jada, haurdun dauden emakumeek eta umeek ez dute tratamendua jasotzea lekurik pobrene-

2005eko irailaren 19an Henry Reeve nazioarteko brigada sortu zuen Fidel Castrok. Izurrite larrietan eta hondamendietan espezializatutako medikuek osatzen dute

Kanpainan, Jair Bolsonaro ultraeskuindarrak atzerrian dauden mediku kubatarren lan baldintzak salatu eta boterera heltzean «Mais Medicos» programa aldatuko zuela esan zuen

Boliviatik ateratako osasun arloko langile kubatarren lehen taldea azaroaren 16an heldu zen Habanara.
Yamil LAGUE | AFP

EKONOMIA ITOTZEKO, BLOKEOA ESTUTU DU TRUMPEK

Donald Trumpen Administrazioak Kubaren kontrako blokeoa nabarmen gogortu du. Nazio Batuen Batzar Nagusian aurkeztu zuen txostenean, Kubak 2018ko apiriletik martxoaren 2019ra bitartean blokeoak eragindako kalteen gaineko ikerketa sakona aurkeztu zuen. Epe horretan, 4.343,6 milioi dolarreko galerak eragin zizkion irlari. Blokeoa estutzeko eta ekonomia kubatarra itotzeko, Washingtonek hainbat neurri hartu ditu, hala nola Helms Burton legearen III. titulua indarrean jarri eta itsas bidaiei Kubara joatea debekatu die, turismoari kalte handiak eraginez, are gehiago, turismoa irlaren ekonomiaren zutabe izanik. AEBen eta irlaren arteko hegaldiak zein familien arteko diru bidalketak ere murriztu eta mugatu dituzte. 2019ko ekainaren 5az geroztik, «Herriz herri» programaren baitako hezkuntza arloko bidaia ere bertan behera utzi ditu Trumpen Gobernuak. NBEeko Batzar Nagusiak 27 ebazpen onartu ditu blokeoaren kontra. Orotara, 922.630 milioi dolarreko kalteak eragin dizkio Kubari.

tan...», nabarmendu zuen Ligia Bahiak, Rio de Janeiroko Unibertsitateko irakasleak, “The New York Times” egunkariari egindako adierazpenetan. «Mediku kubatarrek baldintza zailetan lan egiteko prestutasuna zuten. Osasun arretarik ez zen zonaldeetan zeuden. Brasilgo osasun sistemaren funtsezko pilarea ziren».

EKUADOR ETA BOLIVIA

Ekuadorren, Lenin Morenoren Gobernuak bertan behera utzi ditu Kubako Osasun Ministerioarekin sinatuta zituen sei hitzarmenak. 400 mediku kubatar zeuden herrialdean. Hedadideek Ekuadorren egondako mobilizazioetan parte hartzea leporatu zieten. Habanak ukatu egin zuen.

Osasunaren alorrean Ekuadorrekin elkarlana 1992an hasi zen, hots, Rafael Correa boterera heldu baino askoz lehenago. Aurretik ere Ekuadorren egonak ziren mediku kubatarrak. 1986an, brigada bat bidali zuen Kubak euri jasek eragindako larrialdi egoera dela eta. 2001ean, denge epidemia larri batengatik. 2016ko apirilean, Manta gogor astindu zuen lurrikaragatik. 1992tik Lenin Morenok elkarlana bertan behera utzi arte, 3.565 osasun langile kubatar egon ziren Ekuadorren; 212.360 ebakuntza egin zituzten, 3.548 erditzetan lagundu zuten, 10.000 txerto banatu zituzten.

Oraintsu, Boliviako estatu kolpearen ondoren, Jeanine Añezek Gobernuak ere mediku kubatarren kontra egin du. Brigadaren koordinatzailea eta beste hiru kide atxilotu zituzten Evo Moralesen aldeko mobilizazioak sustatzea leporatuta. 431 profesional Kubara itzuli dira jada Boliviatik, tartean atxilotutako lauak.

UIGURREN «BERREZIKETA»

Etnia turkomanoko herritarren atxiloketa masiboaren filtrazioak sutan jarri du Txina

Ate bikoitzez giltzapetuta, bideokamerak nonahi, baita komunean ere. Txinako dokumentu ofizialen filtrazio handi batean oinarria omen duen ikerketa batek indartu egin du Txinaren aurkako salaketa. Filtrazio horren arabera, Xinjiang herrialde musulmanean ehunka “berreziketa eremu” zabaldu ditu.

Ikerketa Kazetarien Nazioarteko Partzuergoak (ICIJ) Xinjiangetik bertatik –uigur etnia musulmanaren jatorria– lortu omen ditu 400 orrialdek osatutako 200 dokumentu. Txostena munduko hamazazpi egunkaritan kaleratu da asteon, “Txinako Paperak” titulupean. ICIJ izan zen, hain zuzen, hainbat komunikabideri 2016. urtean makina bat agintari politiko, enpresa gizon, kirolari eta

 **TXINA** / Dabid Lazkanoiturburu

«Panamako Paperak» kaleratu zituen ikerketa kazetarien nazioarteko ICIJ taldeak Txinak Xinjiangen dituen «berreziketa eremuen» inguruko filtrazioa egin du orain. Eman dituen datuen arabera, milioi bat uigur baino gehiago giltzaperatuta egongo lirakeke uneotan. Baieztatuko balitz, Bigarren Mundu Gerratik gutxiengo erlijioso baten aurkako internamendurik handiena litzateke.

pertsonaia ezagun agerian utzi zituen filtrazioa entzutetsua egin ziena; ustelkeria eta zergak ez ordaintzeko trikimailuak azalerazten zituzten “Panamako Paperak”, zehazki.

Kazetarien Partzuergoaren esanetan, oraingo bere lanak «Bigarren Mundu Gerratik gutxiengo erlijioso-etniko baten kontra eman den internamendurik handienari buruzko xehe-

tasunak ematen ditu». Giza eskubideen aldeko erakundeek eta NBERen ustez, eremuotan milioitik gora uigur atxilotuta dituzte. Ez da salaketa hori egin den lehen aldia, baina bai orain arte aurkeztu den zehatzena.

Filtrazioa argitaratu duten egunkariaren hitzetan, sekretupeko dokumentuak herrialdean agintzen duten goi karguen

aginduetan oinarritzen dira. Antza, Xi Jinping buruzagi “ahalguztidunaren” Gobernuak martxan jarritako metodoak zehazten dituzte, milaka eta milaka uigur atxilotzeko metodoak.

Metodoen artean, “berreziketa eremuetan” lan egiten duten kartzelarientzat gidaliburuak, segurtasun protokoloak, atxilotuak behatzeko neurriak eta internatutakoak askatzeko irizpideak aipatzen dira. Era berean, Xinjiangeko herritarren artean identifikatu eta atxilotu daitezkeenak zehazteko politika ere jasotzen da, inteligentzia zerbitzuek osatu eta bidali dituzten zirkularrak hain zuzen.

GUTXIENGO KOLONIZATUA

Hamaika milioi inguru uigur bizi dira Xinjiangen, Ekialdeko Turkestan historikoan. Etniko-ki turkomoanoak dira eta erlijio musulmana dute. Txinako mendebaldeko muga da Xin-

Ustezko «berreziketa eremu bat», Xinjiangen.
GREG BAKER | AFP



jiang, eta, beraz, Asiako potentzia “Zetaren Bidea” izenarekin aurrera eramaten ari den proiektu estrategiko erraldoiarentzat ezinbesteko ataurrea. Hala ere, auzia aspaldikoa da. Horren erakusle, azken hamarkadotan herrialdea kolonizatzeari ekin dio Pekinek eta han etniako milioika herritar bertara bidali ditu –Txinako etnia nagusia osatzen duten hanek–. Egun, uigurak biztanleriaren erdia baino gutxiago dira jada Xinjiangen. Hanak, gehiengo bihurtzetik aparte, agintzen dutenak ere badira, noski.

Horrela bada, uigurren artean Pekinen aurkako haserre nagusitu da. Txinaren aurkako saiakera armatuak ere izan dira, baita komunitateen arteko liskarrak eta *pogrom*-ak ere. Adibidez, 2009an, 200 hildakotik gora eragin zituen eraso izan zen.

Egoera larriaren erakusle, Ekialdeko Turkestanen independentzia edota gutxieneko eskubideak aldarrikatzen dituztenak kartzelan edo erbestean daude egun, Munduko Uigurren Batzarreko kideak kasu. Egoera are gehiago korapilatzeke, islamismoarekin, eta, haratago, baita jihadismoarekin ere, bat egin duten uigurrak badaude. Batez ere Siriako gerran parte hartu dute, Al-Qaedaaren eskutik.

«ERRUKIRIK GABE»

Txinako Gobernuak egoera baliatu du errepresioa eta kolonizazioa bultzatzeko. Kunmingeko tren geltokiaren eta uigurren hiriburu historikoa den Urumquiko atentatuaren ostean, 31 eta 39 hildako eragin zituzten hurrenez hurren, Xi Jinping Txinako Alderdi Komunistako idazkari nagusiak dei egin zuen 2014an «inolako



Txinako Armada Gorriko zaldunak, Xinjiango mugan.
AFP

errukirik gabe terrorismoari, separatismoari eta infiltrazioei aurre egiteko, herriaren diktadura demokratikoaren armak» erabiliz eta «beraiek bezain krudelak garela erakutsiz». «Behar den jende guztia atxilotzeko» deia ere egiten zuen agindu sekretu hori Xinjiango agintari guztiei helarazi zitzaion 2016an.

Filtrazioak berak, hain mardula izanik, Txinako Gobernuaren barnean Xi Jinpingen

politikarekin bat ez datorrenik badagoela erakuts dezake. Izan ere, dokumentuak filtratu dituen “iturri ofizial” bat izan behar da derrigor. Filtratu diren dokumentuetako batek erakusten duenez, gainera, neurriekin ados ez zegoen eta milaka atxilotu askatzea erabaki zuen agintari bat alderditik kanporatu eta purgatu egin zuten. Hori bai, dirudienez, agintari gehienek zorrotz bete dituzte aginduak.

Atxilotze sistema ustez susmagarriak diren uigurren identifikazioarekin hasten da. Horretarako, kameraren bidezko aurpegi-errekonozimenduak gain, mugikor aplikazio bat erabiltzen dute, Zapya. Jatorriz Internet konexio eskasa duten herrialdeei begira sortu zen aplikazioa, eta, sarearen beharrik gabe, testuak, argazkiak eta bideoak partekatzea ahalbidetzen du, mugikorra inguruan den beste gailu batentzat wifi puntu bilakatuz. Bada, Txinan ez ezik, Myanmar, Pakistan eta Indian asko erabiltzen den Zapya aplikazioa behatu eta Korana irakurtzeko gomendioak edota ekitaldi islamikoetan parte hartzeko mezuak igortzen dituztenak identifikatu eta atxilotu egiten dituzte zerbitzu sekretuek.

TXINAKO GIZONA XINJIANGEN

Urte batean bi milioi mezu kontrolatu zituzten, dokumentuen arabera. Dokumen-


TXINA, ATENTATUAK ETEN IZANAREKIN POZIK

Txinak azaldu duenez, «kanpoko komunikabide batzuk bazterrak nahasten dabiltza Xinjiangen gertatzen dena esajeratuz eta Txina terrorismoaren eta erradikalizazioaren aurka aurrera eramaten ari den kanpaina zikindu nahian». Geng Shuang Atzerri Ministerioako eledunak gaineratu duenez, «ez dute beraien helburua lortuko eta gezur hauei erantzunik onena Xinjiang egonkor eta oparoa izango da».

Pekinek gezurtatu egiten du milioi bat uigur «atxilotuta» dituenik eta zentroak «lanbide heziketakoak» direla dio. Are gehiago, bertan daudenak boluntarioki sartzen direla zentroetan ziurtatu du. «Abian jarritako politikari esker azken hiru urteotan ez da atentatu edo erasorik izan Xinjiangen, 1990tik 2016ra bitartean milaka izan zirenean. Atzerriko komunikabideak, aldiz, ezikusiarrena egiten dute horren aurrean», dio Gengek.

Uigurrentzakako «berreziketa eremuak»

Uigur etnia musulmaneko milioitik gora pertsona atxilotu izana leporatzen zaio Txinari Xinjiang eskualdean (Ekialdeko Turkestan). Pekingo Gobernuak dio kartzelen gisako egoitza horiek «bokazio-eskolak» baino ez direla.



GN | GARA

tuetako batek Xinjiangen Se-gurtasun arloko arduradun nagusia den Zhu Hailunen sinadura darama. Zhu omen da, iturri guztien arabera, Xinjiangek pairatzen duen errepresioaren arduradun nagusia. Baina badu bere gainean beste goi kargurik.

Chen Quanguo da 2016tik Alderdi Komunistak Xinjiangen duen kargurik altuena. Tibeten aurkako errepresio kanpaina zuzendu ostean iritsi zen, sari gisa Politburoan eserleku bat lortu ostean. Bera omen da Xiren aginduak bete-arazten dituen eta “berreziketa eremuen” sistema martxan jarri duena.

Dokumentuen artean badaude Zhu Hailungen sinadura daramaten gehiago. Telegrama batean, Xinjiangeko “bigarren agintariak” herrialdeko prefektura guztiei eremuak nola gestionatu behar diren agintzen die. Ate bikoi-tzak jartzea eta nonahi, logela eta komunak barne, kamerak jartzean agintzen du. 2017ko zirkular horretan, protokolo zorrotzak agintzeaz gain, “ikasleek” (horrela deitzen zaie atxilotuei) “graduazioa” (askatasuna) lortzeko bete beharreko baldintzak zehazten dira.

«SALAM ALEIKUM» EZ, MANDARINEZ
Ihesaldiak ekiditeko helburuarekin, kontrolak, patruilak eta kamerak eta alarmak jartzea agintzen du dokumentuak. Gutxienez urtebeteko egonaldia gomendatzen du gidaliburuak, baina batzuetan epe hori gaintitzen dela salatu dute bertan preso egon diren hainbatek. Atxilotuek ebaluazio kontrol bat gaintitu behar dute eta beraien «aldaketa ideologikoa, dizi-plina eta ikasteko eta entrenatzeko grina» neur-tzen da askatu baino lehen.

Lekuko batzuk salatu duten moduan, «*Salam Aleikum, Aleikum Salam*» agurra erabiltzea debekatuta dago eta derrigorrezkoa da mandarin txinera erabiltzea. Herrialdeko hizkuntza ofiziala eta gehien hitz egiten dena bada ere, hegoaldean, adibidez, ez da mintzatzen.

Kartzelariak ez omen dute “ikasleekin” inolako harremanik izateko baimenik. Dokumentuan artean Xinjiangera bueltatzen diren eta beren inguruko lagunak edo senideak desagertu egin direla ikusten duten herritarrei zer esan behar zaien argitzeko funtzionarioentzat zirkular bat ere badago. Zirkularrak herritarrok lasaitzea gomendatzen du, baina, ezinezkoa balitz, mehatxatzea agintzen du, ho-

nakoa gogoraraziz: egiten dutenak edota esaten dutenak eragina izan dezake beren gertukoek giltzaperatuta igaroko duten denboran.

Filtrazioak, ordea, ez dira iritsi Txinako Gobernuak martxan jarri omen duen Ekintza Bateratuen Plataforma (IJOP) sistemaren funtzionamendua ezagutzera. Uigurren behaketa masiborako sistema da eta,


Filtratutako dokumentuen arabera, zentroetan urtebeteko egonaldia egin behar dute atxilotutakoek eta beraien «aldaketa ideologikoa» aztertzen da askatu baino lehen

Txinak gezurtatu egin du zentroetan milioi bat uigur atxilotuta dituenik. «Lanbide heziketako» zentroak direla dio, eta, «ikasleak» bertan «era boluntarioan» sartzen direla

Txinako Gobernuak dioenez, «lanbide heziketarako zentroak» baino ez dira filtratutako dokumentuetan aipatzen direnak.
AFP

esate baterako, aipatutako Zappy aplikazioarekin lortutako susmagarrien datuak sistema horrekin partekatu eta alderatzen dira.

Ez da, uigurren ustez, ikerketaren hutsune bakarra. Ekialdeko Turkestanen Berpizte Nazionalerako Mugimenduak, adibidez, 500 «atxilotze eremu» ingururen berri eman du egunotan, tartean «182 kontzentrazio eremu, 209 presondegi eta 74 derrigorrezko lan eremu». Hori horrela balitz, atxilotutakoak askoz gehiago lirateke, hiru milioi pertsona inguru. Milioi bat edo hiru, James Leibold aditu australiarren ustez, filtrazioek argi uzten dute dokumentuetan aipatutakoak «heziketa zentroak izatetik oso urrun ez, baizik eta antipodatan» daudela.





Oier Gorosabel - @Txikillana

Fisioterapeuta

Gerriaren postura egokia pisua jasotzerakoan

Gure lanaren parte garrantzitsua da, eguneratu ahala, ikasi ditugun gauzak modu ulergarrian pazienteei transmititzea. Osagileon erantzukizuna da, gainera, transmititzen ditugun ezagupen horiek uste edo iritzi hutsetan oinarrituta ez egotea, baizik eta ondo eginiko ikerketetan. Ahalegin horretan paradoxak gertatzen dira: esate baterako, urte askoan ontzat eman ditugun gauzak (pazienteek zein osagileok) baztertu behar izatea, ebidentziaren argitan zentzua galdu dutelako. Hori gertatu zait niri joan den asteotan artikulu honen izenburuko gaiarekin; eta ikasitakoa norberari aplikatu eta gero, pazienteen artean zabaltzearen txanda dator orain.

Harira: gizartean oso zabal-duta dagoen uste okerraren arabera, lurretik pisu bat jasotzeko, sistema egokiena belau-nak flexionatzea da eta, bizkarrara zuzen dugula, pisua belauen indarrez jasotzea. Horrekin lotutako beste uste oker batzuk: pisua jasotzeko, gerria makurtzea eta besterik gabe altxatzea ezin txarragoa da; gerria oso hauskorra da eta, oso erraz hondatzen bada ere, oso zaila da sendatzeko. Berriz esango dut, argi gera dadin: paragrafo honetan aipatutako guztiak fundamenturik gabeko sineskera baztergarriak baino ez dira.

Gaur egun eskuragarri dugun ebidentzia zientifikoak, oster, bestela dio: pisua era batera edo bestera jasotzeak ez du zerikusirik zuzenik gerriko mina etortzearekin edo ez etortzea-

rekin; gerria ez da kristalezkoa eta, behar bezalako entrenamenduarekin, lan astunak egiteko gaitasuna du; eta haren lesioek (artikulazioenak, muskuluenak, disko herniek) tratamendu egokiarekin pronostiko ona dute.

Halere, 2018an eginiko ikerketa batek neurtu duenez, gure gizartean lehen aipatutako uste oker horiek hedapen oso handia dute. Horrek ondorio kaltegarriak baditu, larriak ez badira ere: minik ez duten pertsonen jardue-ra eta mina dutenen sendatze prozesua oztopatzea. Gainera, hori ez da bakarrik pazienteen artean gertatzen: nire lankideen artean egin dudana in-

kesta partikular batean ikusi dut osagileok ere oso barneratua dugula "pisuak jasotzeko belau-nak flexionatu" behar diren ipuin hori. Eta beraz, paper aktiboa jokatzen dugula pazienteen sineskera hori indartzerakoan. Gida klinikoetan, liburuxketan, lantegietan egiten diren ergonomia ikastaroetan... fundamenturik gabeko uste horiek guztiz hedatuta daude.

Egoera xelebre hau, zati handi batean, 60ko hamarkadan eginiko ikerketa batean oinarrituta dago; Na-

chemson izeneko osagile batek aldarrikatu zuen pisuak jasotzeko gerrirako hobe zela belau-nak flexionatzea, eta ikerketa horrek hedapen handia izan zuen mundu osoan. Gero eginiko ikerketek ondorio hori ukatu dute, eta Na-chemsonek berak ere aitortu du hori; baina zuzenketen hedapena askoz ere txikiagoa izan da. Ebidentzia ezin argiagoa izan arren, antzeko beste kasuak ezagututa pentsa daiteke gizarteak lehen-goarekin jarraituko duela urte batzuetan.

Baina zuek, artikulu honen irakurleok, ez duzue horren zain egon beharrik: jakin ezazue, gaur eta orain, gerriarendako berdin-berdin dela pisuak belau-nak flexionatuz ala zuzen jasotzea, eta lasai eta eroso mugi zaitezte zuen lanpostuan. Kaleko jendea eta lankideak espantuka hasiko zaizkizue, baina jaramonik ere ez; eta osagileren batek zerbait esaten badizue, gai honetan eguneratu beharra duela erantzun. •



Pisua jasotzeko erak ez du zerikusirik gerriko minarekin.

GAUR8

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Epe laburreko zurrunbiloan murgilduta

Norbaitek esan al dezake zer pasatuko ote den datozen hilabeteotan? Bai, jakina, EAJk aurrekontua aterako ditu PSErekin eta sekulako aldaketa eman duen Ahal Dugu Podemosekin. Euskal “kasta” estutzera zetorren indarra. Baina, gainerakotan, zer gertatutako da beste auzietan; esaterako, Nafarroako aurrekontuetan edo Espainiako Gobernuaren eraketan? Sanchez gobernuburu izango da edo berriro ere, enegarren aldiz, hauteskundeak izango dira? Beharbada, lerrook idatzi eta GAUR8ko zenbaki hau kioskotara iritsi arteko tartean bertan izan daiteke ezustekorik, aurrera edo atzera. Nork daki.

Aitortu behar da taktikak sekulako garrantzia hartu duela, egun batetik besterako urratsek bereganatu dutela arreta. Eta hori prozesu estrategikoak garatu nahi dituztenek ere aitortu behar dute, aurrera begirako ikuspuntua ahazterik ez bada ere.

AZKEN HELBURUAK PRESENTE

Duela urte batzuk Euskal Herrira etorri ziren Irlandako errepublikanoen ordezkari batzuek –IRA erakunde armatuko boluntarioak izandako Sinn Feineko kargudunak ziren– ondokoa adierazi zieten Euskal Herriko zenbait eragileri elkarrekin izandako harremanetan: «Guk, gure bilerak egiten ditugunean, edozein dela gaia, epe laburrekoa izanda ere, gure helburu estrategikoak jasotzen dituzten afixak jartzen ditugu bilera aretoko hormetan, unean uneko zurrunbiloan horiek ahaztu ez ditzagun». Behin bilerak amaituta, afixak jasotzen zituzten, egunerokoan horien aipamen iraunkorrak ez zezan bat-batean egin beharrekoa eragotzi.

Horixe da, azken batean, politika egitea. Politika egitea ez baita amaigabe estrategiari buruz eztabaidan aritzea, ea prozesua aldebakarreko edo aldebikoa izan behar den bukaerarik gabe eztabaidatzea; marko nazionala lehenetsi behar den edo egungo hiru eremue-

tan ekin behar ote den hitz eta pitz aritzea... Eta politika ez da ezta ere soilik hurrengo hauteskunde edo prentsaurrekora begira estu eta larri ibiltzea, egun batean hara eta hurrengoan hona. Lehen joera, irismen estrategikoaren izenean egunerokoan paralisia sortzen duena, kasik kontenplaziozko filosofia da; bigarrena, uneko uneko egoerak jaten uztea, Twitter da.

TAKTIKA, ESTRATEGIA ETA ILDO POLITIKOA

Politika taktika eta estrategia baita, epe laburreko zein luzeko erronkak barnebilduko dituen ildoak zehaztea. Eragin eta baldintzatu. Aldeko indarrak metatu eta kontrakoak indargabetu. Aurrera egin eta eutsi. Zirt edo zart egin eta, aldi berean, etorkizuna gutxieneko patxadaz begiratu. Ez katramilatzea izan behar da al-

Politika taktika eta estrategia da, epe laburreko zein luzeko erronkak barnebilduko dituen ildoak zehaztea. Eragin eta baldintzatu. Aurrera egin eta eutsi

daketa politikoak zein sozialak eragin nahi dituzten eragileen printzipio gidari nagusietako bat. Printzipioak eta eraginkortasuna behar bezala orekatu, lehendabizikoetan kateatuta gelditu gabe eta bigarrenetan nor-tasuna erabat galdu gabe. Kontraesanak kudeatuz eta alferrikako ika-miketan denbora xahutu gabe.

Oraindik ere, zenbaitetan, azken ziklo historikoaren lortutakoak ez gara behar beste jabetzen. Iragana da, jakina, baina aurrera begira proiektatzeko aukera eman zuela ezin daiteke aiantzi. Herri izatea bera izan zen jokoan ez dela urte asko. Hil ala biziko erronka, garaiko terminoetan esanda. Frankismoak ezarritako ataka hartatik atera izanak ez du, berez, etorkizuna bermatzen, baina geroari ekitea ahalbidetzen du. Ez da gutxi. Eta batez ere, ez da gutxietsi behar. •

{ analisia } **Xabier Izaga**

Hizkuntza gutxituak eta garapen iraunkorra

EHUko Letren fakultateko 1.04 ikasgelan Euskararen Didaktika irakatsi ohi dute asteazken arratsaldeetan. Joan den astean, ordea, irakasleak joaterik ez zuenez, “Hizkuntza aniztasuna, hizkuntza gutxituak eta garapen iraunkorra” izenburuko mintegi bat antolatu zuten bertan Elebilab ikertaldeak eta Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak. Zer lotura du, baina, garapen iraunkorrak hizkuntza

Hizkuntza gutxituek eta garapen iraunkorrak ba al dute elkarrekin zerikusirik? Itziar Idiazabal EHUKo katedradunaren eta Patxi Baztarrika hizkuntza plangintzan adituaren ustez, ez dago bata bestea gabe.

aniztasunarekin edota hizkuntza gutxituekin? Lehenengo hizlaria Itziar Idiazabal EHUKo katedraduna izan zen. Idiazabal, besteak beste, EHUKo Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedraren koordinatzailea da eta mintegiari izena eman zion liburua aurkeztu zuen, “Linguistic diversity, minority languages and sustainable development”, berak eta Manel Perez-Caurelek editatua. Lan horrek, hain zuzen, hizkuntza aniztasunaren eta garapen iraunkorraren arteko lotura azaltzen du, eta herrien kulturak eta hizkuntzak bazter utzita ez dagoela garapen iraunkorrik baieztatu ez ezik, erakutsi ere egiten du.

Hainbat esperientzia
Hizkuntza gutxituen galera ez dela arazo linguistikoa bakarrik esanez hasi zuen Idiazabalek bere solasa, garapen iraunkorraren arazo ere baita. Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak hizkuntza aniztasuna aldarrikatzen du garapen iraunkorrerako helburu gisa NBEren 2030 Agendaren markoan, agenda horrek modu esplizituan aipatzen ez badu ere. Aurtengoa NBEk Hizkuntza Indigenen Urtea izendatutakoa da, hizkuntza gutxituak desagertzen diren erritmoa gero eta bizkorragoa dela kontzientzia hartzeko, eta,



Itziar Idiazabal eta Patxi Baztarrika, Gasteizko Letren fakultatean, mintegiaren hasieran. GAUR8

Idiazabalek liburuan dioenez, esperientzia erakusten ari da hizkuntza aniztasuna garapen iraunkorrerako faktorea dela eta, hortaz, garapen iraunkorreko helburuetako parte izan behar duela, eta tokiko hizkuntzek hezkuntzan, osasungintzan eta beste hainbat arlotan duten garrantzia azpimarratzen du.

Liburua sarean dago irakurgai, eta Idiazabalekin batera beren ekarpena egin duten nazioarteko autoreek hizkuntza gutxituek beren komunitateen garapenerako faktore gisa duten balioa nabarmentzen dute. Denak ere prestigio handiko adituak eta hizkuntza gutxituen aldeko ekintzailak dira, eta munduan zehar hizkuntza gutxituak biziberritzeko egin diren hainbat gogoeta eta esperientzia agertu dituzte ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz.

Artikulu horietatik hartutako zenbait ideia nabarmendu zituen Idiazabalek bere hitzaldian. Lehenengo, ez dagoela herrien garapen iraunkorrik tokiko hizkuntzak kontuan hartu gabe. Bigarren, hizkuntzak biziberritzeko legeak eta erakundeen onespena beharrezkoak eta, beraz, balio handikoak direla, baina, komunitateak zuzenean parte hartzen ez badu, hizkuntza biziberritzeko politikek nekez izango dutela arrakasta. Hirugarren ideiarekin arabera, hizkuntza bat biziberritu eta indartzeko



Patxi Baztarrika, bere hitzaldian.
GAUR8

hezkuntza garrantzitsua da, baina eleaniztuna izan behar du; tokiko hizkuntzan oinarritua bada ere, helburua ikasle gutxienez elebidunak izatea izan behar da. Azkenik, hizkuntzek balio espiritualekiko lotura ere badutela, batez ere herri indigenetan, eta nortasunaren eraikuntzan eragiten dutela nabarmendu zuen.

Ez dira oztopo

Idiazabalen ondoren, Patxi Baztarrika hizkuntza plangintzan aditu eta Gasteizko Gobernu Hitzak Hizkuntza Politikarako sailburuordeak hartu zuen hitza, liburuan egin duen ekarpenaren nondik norakoa azaltzeko; alegia, hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak zentzu guztietan errentagarriak direla erakusteko.

Bada aurreiritzi bat, oso zabaldu eta interesatua, giza ga-

rapen iraunkorrerako hizkuntza gutxituak biziberritzea gailera ekonomikoa eta garapenerako oztupoa den ideiak eragindakoa. Horren arabera, hizkuntza horien biziberritzea ez da garapen iraunkorrek bideragarria.

Baztarrikak, hain justu, kontrakoa erakutsi zuen «euskal eredu» aztertuz. Hala izendatu zuen EAEko biziberritze prozesua, Euskal Herriko administrazio banaketaren ondorioz eredu desberdinak daudela gogorarazi bazuen ere. Izan ere, Ipar Euskal Herrian euskarak ez du balio ofizialik ere, eta Nafarroan zonifikazioak erabakitzen du ofizialtasun maila eta are ofizialtasunik eza ere. Onartu beharra dago Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ereduak dela eraginkorrena eta herritarren berdintasuna bermatzen duen bakarra, gabeziak gabezia.

Prozesu hori EAEko bilakara sozioekonomikotik bereizte zina dela ziurtatu zuen. 80ko hamarkadaren hasieran Euskararen Legearekin batera abiatu zen prozesu horren gaur arteko bilakaera erakutsita, zama izatetik urrun, bilakaera linguistikoak eta denbora tarte bereko bilakaera sozioekonomikoak elkar elikatu dutela ondorioztatu zuen. Esan zuenez, euskararen aldeko jarrera demokraziari eta balio positiboek lotzen zitzaion, eta prozesuaren oinarrian ekitatea, askatasuna, berdintasuna eta gisako balioak zeuden, giza garapenaren balioak, hain zuzen. Baztarrikaren ustez, euskararen biziberritze plana gizarte kohesiorako ekarpen handia izan da.

Hiru herrialdeotan, 80ko hamarkadako lehen erdiaren datuek sare industrialaren gainbehera, ekonomiaren

egoera kaskarra, %20tik gorakoa langabezia tasa eta gatazka politikoaren adierazpide bortitzak erakusten dituzte. Egoera soziolinguistikoari dagokionez, euskara ahula, gutxitua eta gainbeheran.

Hiru hamarkada eta erdi geroago, datu sozioekonomikoek bestelako egoera erakusten dute guztiz: *per capita* errenta eta giza garapeneko indizeak inguruko altuenetakoak, babes soziala... Eta bilakaera soziolinguistikoa norabide berekoa izan da, euskaldunen prestigioarekin batera euskaldun kopuruak nabarmen gora eta erdaldun elebakarrenak behera eginda, besteak beste.

Baztarrikaren ustez, hizkuntzak garrantzitsuak dira desberdintasunarekiko, aniztasunarekiko, norbanakoaren eskubideekiko errespetuaren aldetik eta kohesio eta bizikidetzaren faktore gisa; baina, gainera, hizkuntzek, baita hizkuntza gutxituek ere, balio ekonomikoa ere badutela esan zuen. Hainbat hizkuntza gutxituk milaka lanpostu sortzen dituzte Europan. Euskarak, gainera, eragina dauka barne produktu gordinaren hazkundean. Gasteizko Gobernuak 2015ean Siadecori eskatutako ikerlan baten arabera, EAEko enpleguaren %6,3 sortzen du euskararen sektore ekonomikoak, eta bertako ekonomiaren barne produktu gordinari egiten dion ekarpena %4,2koa da. Euskararen ba-



lio ekonomikoa, hortaz, nabarmentzeko modukoa da.

Herri gogoa

Jakina, datu hotzak dira, eta haien atzean badaude eztabaida eta desadostasun ugari; esate baterako, hezkuntzan, hizkuntza ereduak helburua betetzen ez dutelako; Mintegian aurkeztutako liburuko zenbait artikuluren arabera, tokiko hizkuntza ikasgai bezala erabiltzeak ez du hizkuntza horretako hiztunik lortzen.

Bestetik, Baztarrikak aztertu duen prozesua Euskararen Legearekin batera hasi zen, baina gogorarazi behar da 80ko hamarkada baino lehen euskararen biziberritzea abian zela jada, abian baitziren aurreko hamarkadetan sortutako ikastolak eta gau eskolak. Ondoren, legez babestuta, mugimendu haren bultzadaren eraginkortasuna biderkatu egin zen. Izan ere, eskumenak, botere politikoak, finean, berebiziko garrantzia du hizkuntza gutxituak biziberritzeko.

EHUko Munduko
Hizkuntza Ondarearen
Unesco Katedrak
bultzatu eta Itziar
Idiazabal eta Manel
Pérez-Caurelek
editatutako liburuaren
azala.
GAURB

Edonola ere, bilakaera positibo horren «giltzarri nagusia» herri gogoa dela esan zuen Baztarrikak, eta Euskararen Legea sortu zen garaiko Hezkuntza sailburu Pedro Miguel Etxenikeren hitzak erabili zituen: «Egia da botere publikoen hizkuntza politika eraginkorra izan dela, [...] baina bada beste arrazoi bat are erabakigarriagoa: jendartearen borondatea. Jendarteak berak erabaki du euskara bultzatzea. Urte hauetako esperientzia kontuan hartuta, bada gertatu denaren balorazio baikorra egiteko arrazoirik, denok aurkitu ditzakegun itzalguneak alde batera utzita. Egia baita euskaraz bizi nahi duenak bere aukera linguistikoa gauzatzeko zailtasunak dituela oraindik ere».

Amaitu baino lehen, «hau ez da atzera bueltarik ez duen prozesua» esan zuen sailburordeak, eta aurrera begirako erronkak eta arriskuak aipatu zituen, erronketako bat nabarmenduta: «Euskaraz edo euskaraz ere bizi diren milaka eta milaka herritarren bizipenen eta sorkuntzaren berririk gabe bizi dira erdaldun elebakarrak (%44), haiei bizkar emanda bezala. Eten hori da, nire ustez, gure bizikidetzaren defizitik handienetakoa, eta hori gainditzeko interesa, interes sozial orokorra izateaz gain, euskararen beraren biziberritze prozesuaren ikuspegitik interes ikaragarrikoa da».

GAUR8




ireki gure leihoa



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



ASMR FENOMENOA

Xuxurla batek, soinu batek, bizkarrean laztan batek piztu dezakeen zirrara

📁 JENDARTEA / GAUR8

ASMR esaten zaio ingelesezko siglengatik eta zentzumenen erreakzio edo erantzun bati egiten dio erreferentzia. «Azalean gertatzen den sentsazio estatikoa da, inurriduraren parekoa, normalean buruazalean hasten dena eta lepoaren atzealde eta bizkarrezurraren goialdea zeharkatzen dituen», azaltzen dute neuropsikologoek.

Sentsazio hori ikusmen edota entzumen estimulu desberdinen aurrean piztu daiteke: ahots leun bat, liburu baten orrialdeak pasatzea, azazkalekin plastiko gainazal batean kolpetxoak ematean egiten den soinu errepikakorra, azenario bat mozten duen pertsona baten mugimendu pausatua, mastekatzea, likidoak zurrupatzean egiten den soinua. Pizgarri desberdin asko egon daitezke, egoeraren eta pertsonaren arabera. Batzuek «orgasmo zerebrala» dezala definitu dute, baina pertsona guztiek ez dute sentitzeko gaitasuna.

Sentsazio eztanda horrek beste bide bat topatu du azkenaldian, sarean gero eta ugariagoak diren ASMR bideoak. Askotariko bideoak topa daitezke, autore desberdinenak eta askotariko teknikak erabiltzen dituztenak. Youtuber horietako batzuk benetako izar bihurtuta daude. Adibidez, badira erabiltzaileak xuxurlen bidez lasaitzen dituztenak edota loa hobetzeko teknikak sustatzen dituztenak. Harago joan denik ere bada, eta sarean topa daiteke ASMR bikotea; abestiak eskaintzen ditu, gaitxo zaudenean zopa eskaini, opariak egin eta, oro har, erlaxatu egiten omen du pantaila-

ASMR esaten zaio eta zentzumenen eztanda bati ematen dio izena, «orgasmo zerebral» baten parekoa gozatzen dutenen esanean. Oso gauza txikiak piztu dezakeen zirrara berezia da eta Interneten dagoeneko baditu leiho propioak, ASMR bideoak zabaltzen dituztenak asko eta askotarikoak baitira.



Ile apaindegian ilea garbitzean, paper bat biltzean ateratako soinua entzutean, soinu suabeak eta errepikakorrak entzutean, norbaitek zerbait belarrira xuxurlatzean... Espero gabeko gauza askok piztu dezakete zentzumen eztanda bitxia.
GAUR8

ren beste aldetik begira dagoena. Badira norbait mastekatzeko agertzen diren bideoak; objektuak azazkalekin kolpatzen dituztenak; biribilkatutako toallak askatzen dituztenak... Askotariko soinuek eta mugimenduek sortu dezakete zirrara. Adituen esanetan, eduki digital horien gorakadak bi norabide ditu; batzuentzat gustagarri eta erlaxagarri dira eta beste askoren jakin-mina pizten dute.

KONTZENTRAZIOA, EZINBESTEKOAK

ASMR bideo horiek jende askori egiten diete mesede, erlaxatu egiten dira eta haien umorean eragina daukate, onerako. Beste jende askorengan, berriz, ez daukate inongo eraginik. Fenomeno horren oinarri zientifikoa ez dago garbi. Alegia, ikerketak egiten ari diren arren, neuropsikologoek ez daukate batere garbi sentsazio horien azpian ezer berririk dagoenik. Hori bai, sentitzeko oso beharrezkoa da oso kontzentratuta egotea.

Hala ere, orain izen hori jarri dioten arren, sentsazio eztanda hori ez da gauza berria jende askorentzat. Hiru pizgarri mota identifikatu dira oraingoz; ukimena, entzumen eta ikusmena. Adibidez, norbaitek ilea ukitzean, bizkarretik eskua pasatzean, norbaiten ahotsa xuxurlatzen entzutean, paper bat biltzean, zerbait eskuilatzean, norbaiten mugimendu suabeak ikustean...

Fenomenoa ez da oharkabean pasa markentzat eta dagoeneko merkatuan sumatu da ASMR joera. Adibidez, Samsungek Galaxy "belarriduna" patentatu du, ASMR bideoak grabatzeko gaitasuna duena. Eta iragarkien munduan ere sumatu da ASMR efektua.

«HOUSTON, ARAZOTXO BAT DAUKAGU»

Amagoia Mujika Telleria

1999ko abenduaren 28an, Hernanin. Joxerra Garzia gaiak jartzen eta Andoni Egaña bertsotan, bera bakarrik. Ez da edozein saio, apartatzeko moduko ale asko geratu ziren han, saio esperimental hartan. Lankuk disko-liburu batean jaso du altxorra, hogeitaz urteren ondoren jenialtasuna izaten segitzen duena.


Duela bizpahiru urteko San Sebastian eguna zen, goizean goiz samar. Antigua auzoko kaleetan gaua tarrapatapan pasatutako danborrada batetik mutil gazte bat hurbiltzen zait, eta besoa lepoan ezartzen dit. Ezaguna zait egoera, eta beldur naiz hala moduzko bertso bat kantatzeari ekingo ote dion, marru batean noski, edo puntu hankaluzeren bat jarrita ni tentatzeari bestela, marruka betiere. Apur batean isilik iraun eta gero, honako hau xuxurlatu zidan mutilak belarri-ertzera, buruz ikasitako mantra lilurazkoa balu bezala: ‘Torturatzaila bere lanaldia amaitu eta etxean dago gozo-gozo, bere katua maitekiro laztantzen’».

Joxerra Garziak kontatzen duenez, erabat harrituta geratu zen mutil gazte haren ateraldiarekin. Gai hori, torturatzailaarena, 1999ko abenduaren 28an Hernanin izandako saio oso berezi batean berak jarri zion Andoni Egañari. Saio hartan bertsolari bakarra aritu zen ordu eta erdi luzean Garziaren esanetara: Andoni Egaña bera. Parrandan Antiguan topatu zuen gazte hark kontatu zion etxean kasete batean grabatua zuela saio hura eta ez zela aspertzen behin eta berriro entzuten, sekulakoa iruditzen zitzaiola.

Duela hogeitaz urteko inuzente egun hartan berrehun lagun baino gutxiago zeuden Hernaniko Biterin. Han egondakoek laster sumatu zuten saio oso berezi baten publiko izateko zortea izan zutela eta saio hari buruz hitz egin izan da han eta hemen. Orain Lankuk saio hura jasotzen dituen CDa eta liburuxka argitaratu ditu, nahi duenak behin eta berriaz gozatu dezan Garziak eta Egañak egun hartan jositako saio gogoangarriaz.

Joxerra Garziak Hernaniko Iraulio Pantalone Bertso Kabiyaatik jaso zuen deia. «Une hartan, Andoni Egañak dagoeneko Euskal Herriko bi txapela zituen eta nik hamalau egun neramatzan doktore titulua-ekin. Hori zen testuingurua. Zerbait esperimental egin nahi zutela esan zidaten –uste dut Aitor Mendiluzek deitu zidala–, plazan nekez egiten zen zerbait. Aukera bat baino gehiago eman zizkidan, baina saioa bertsolari bakarrarekin egiteko aukera entzun-

Andoni Egaña eta Joxerra Garzia, Lankuk oraintsu atera duen lana esku artean hartuta. Duela hogeitaz urte biek elkarrekin jositako saioa berreskuratu du argitalpenak.
Juan Carlos RUIZ | FOKU



dakoan, balekoa eman nion, baldintza pare batekin; bertsolari bakar hori Andoni izatea eta joango zen entzuleria egitera gindoazenaren zailtasunaz jakituko zena izatea, eta, beraz, hanka sartzeko baimena emango ziguna».

Saioa prestatzeko hamabost bat egun zituen Garziak. Aurretik egin omen zen saio esperimentalen bat, uste baino okerrago joan zena. «Gaiak prestatzen hasi nintzenean berehala konturatu nintzen jolas dibertigarria zena

desafio handia bihurtzen ari zela Andonirentzat, noski, baina baita niretzat ere. Nire helburua bat-bateko bertso-gintzaren mugak esploratzea zen. Andonirekin askotan hitz egiten nuen, konexio handia genuen, eta ezagutzen nituen bere erreferentziak». Saioa prestatzen hasi eta lehen korapiloak sumatuta jarri zion izena saioari: “Houston, arazotxo bat daukagu!”.

Korapiloak askatzen ederki asmatu zuen Andoni Egañak, orduko zuzeneko

entzuleak eta orain saioaz gozatu dute-
nak harrituz eta mugituz. Egañak ere
testuingurua kokatu du. «Gipuzkoako
Herriarteko Txapelketa jokatzetik nen-
torren –Zarauzko taldeak irabazi zuen–
eta saio horren zati bat Mantxiri eta Ju-
len Zulaikari zor diet. Oso gazteak zi-
ren eta txapelketarako entrenamendu
asko egin genituen. Alde batetik, entre-
natuta nentorren, lana eginda. Eta, bes-
tetik, etxean desgrazia handi bat pasa-
tu zitzaigun lau egun lehenago;
amaginarreba hil zen. Horregatik ez
nintzen iritsi kezkatuta edo larrituta,
inguruan bizi izan nuen egoera askoz
okerragoa zen, bueltarik gabea. Konbi-
naketa perfektuarekin iritsi nintzen:
entrenamendu asko eta presio gutxi».

ESKAILERAK KOSTATA JAITSI ZITUEN

Orduko saioaren oroitzapen lainoa
omen du Egañak. Baina ondo gogoan
du Hernaniko Biterira gerturatzen den
aldi akordura etortzen zaion detaile
bat: jaialdia bukatuta, eskailerak jaits-
ten lagundu behar izan zioten. «Gerora
konturatu naiz, kontzentrazio handia
lortzen dudana jaialdietan, gehiago kos-
tatzen zaidala eskailerak jaisten».

Gai-jartzailearen garrantzia ere na-
barmendu du. «Beste sortzaile bat da
gai-jartzailea eta guri, bertsolariei, oso
ondo datorkigu. Saio ona egiten dugu-
nean txaloak bertsolarientzat izaten
dira eta, txarra irteten denean, eran-
tzukizuna gai-jartzailearengan uzteko
joera daukagu. Saio horretan bion lana
dago begi bistan. Joxerrak ezagutzen
zituen nire erreferentzia kulturalak, ni-
re indarguneak eta ahulguneak, baze-
kien non galka eta non pasa, bagenera-
matzan urte batzuk esperimenduak
egiten. Eta saio hau esperimenduak egi-
tearen ondorio pilatu bat izan zen».

Saioari buruz ez du «apenas ezer esa-
teko». «Bertsolariek bota eta ahaztu
egiten dugu eta horrela komeni da egi-
tea. Xabier Amurizak esan zuen bertso-
tan asko ibiltzeko gutxi pentsatu behar
dela. Geroztik 3.000 saio baino gehia-
go egingo nituen... Beraz, berezia izan
zen, baina atzendua nuen gogoan».

Saio hartako gaietako bat hauxe izan
zen: «Azken urteotako hire bizimodua



Goian, Andoni Egaña eta Joxerra
Garzia duela hogeituroko saioan,
«Hitzetik hortzera» telebista saioak
hartutako irudietan.
GAUR8



amets kolektibo bat izan duk, errealita-
te birtual bat. Ez duk egia, besteak bes-
te, Gasteizko hire funtzionario postu
hori utzi huela eta bertsolari profesio-
nala egin hintzela».

Gai horretan ondo ikus daiteke tes-
tuingurua. Hogeituroren buruan, po-
zik dago Egaña hartutako bidearekin.
«Bertsolari bizi izateko zortea izan dut.
Bizitzeko modu hori hautatu nuen, jo-
an-etorrikoa, ziurtasunik gabea, aban-
tailarik bilatzen ez duena... tira, azken
hogeiturotako laburpen bat eginda,
errazago bizi nintekeen, baina hobeto
ez. Eta egia da horrela bizi ahal izateko
ekosistema oso baten babesa izan du-
dala. Adibidez, duela hogeituroko saio
hartan, Joxerrak egin zuen jokaldi osoa
eta nik errematatu egin nuen –egia da
chilena bat izan zela– ; Hernaniko Ber-
tso Kabiak urtero antolatzen zuen
bertso-lata; Xenpelar dokumentazio
zentroak jaso zuen saio hura; ‘Hitzetik
hortzera’ telebista saioak jaso zituen
irudiak... bertsolariak beharrezkoa du
ekosistema hori guztia. Bertsolaritza

**Joxerra Garzia: «Nire helburua bat-bateko
bertsogintzaren mugak esploratzea zen. Andonirekin
askotan hitz egiten nuen, konexio handia genuen,
eta ezagutzen nituen bere erreferentziak»**

**Andoni Egaña: «Alde batetik, oso entrenatuta nentorren,
Gipuzkoako Herriartekotik. Bestetik, ez nintzen iritsi
kezkatuta. Lau egun lehenago etxean desgrazia bat pasatu
zitzaigun, amaginarreba hil zen, egoera askoz larriagoa»**

bat-bateko jarduna da, baina inguruan
koltxoi handi batek ematen dio zen-
tzua guk egiten dugunari».

Gogoangarria eta gozagarria da due-
la hogeituroko saioa. Joxerra Garziak
paratzen dituen egoerak eta gogoetak
bereziak dira, edonor zirikatze-
modukoak. Eta Andoni Egañak horiek kon-
pontzeko josten dituen hitzen segidak,
sekulakoak. Bere ahotsa bakarrik ego-
nagatik oholtza gainean, beste bertso-
lari batzuen presentzia ekartzen asma-
tzen du, imitatzen. «Errazagoa da
imitatzea. Batzuetan errazagoa da gai
baten aurrean Sebastian Lizasok, Maia-
len Lujanbiok edo Mañukortak zer kan-
tatuko ote zuten pentsatzea, gai horren
inguruan nik zer kantatuko nukeen
pentsatzea baino».

Malen Amenabar bertsolariak eta
ilustratzaileak jantzi du liburuxka iru-
diz. Bere testuingurua ere, esangura-
tsua. «1999ko abenduaren 28an nik
bost urte nituen eta segur aski Olen-
tzeroren opariekin jolasean ari nin-
tzen». Ez omen zuen, beraz, orain arte
saioa ezagutzen, baina bikaina irudi-
tzen zaion saioa ilustratzeko aukera
izatea pozik hartu du. Titanic ontzia-
ren inguruan osatu ditu ilustrazioak,
gai bat horren bueltakoa baita. Titanic
hondoratzen ari da eta nagusiak Egaña
ikusi du kubiartan. «Histeria hau nola
hala gozatzeko, kanta itzak bertso ba-
tzuk hondoratzen garen bitartean».

Titanic hondoratu egin zen; Andoni
Egaña ez. Eta hortxe hogeituroren bu-
ruan jenialtasun bat izaten segitzen
duen saioa. Entzun eta gozatu.



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Euskaldunen inertzia zenbait (II)

Azken bi hamarkadotan testuinguru linguistikoa erabat aldatu da EAEn. Hezkuntza sistema autonomikoa martxan jarri zenean, 1980ko hamarkadaren hasieran, egoera argia zen: gaztelera nagusi administrazioan, alor publiko zein enpresetan eta kalean, lurraldearen gehiengoan. Halere, nahiz eta etxean gaztelera egin, bazegoen euskararen aldeko jarrera argi bat familia gehienetan. Izan euskal herritar jatorrikoak, izan gaztelar, andaluziar, galiziar... normaltzat jotzen zen seme-alabak euskaraz eskolaratzea, D ereduan. Halere, A eta B eredu linguistikoa ere sortu izanak, euskaraz ez alfabetatzeko eskubide bat egikaritu zuen, espainiar Konstituzioak eta euskal Estatutuak bermatzen dutena. Erresumako subditook derri gorrez jakin behar dugu gaztelera. Gainontzeko hizkuntzei dagokionez, erabiltzeko eskubidea legez onartua dago. Esker txarrekoak gu!

Kontuak kontu, EAEn jendartearen zati oso handi bat euskaldundu da eta hizkuntzaren ezagutza orokortu egin da. Euskararen oinarritzko maila bat duen jende kopurua inoizko handiena da. Baina aldi berean, B eta A ereduak helduen zati bat euskaratik urrun mantendu dute. Eta lanpostu publikoetan euskaraz lan egin ahal izatea beharrezko bihurtu denean (bestela euskaldunok ezingo genuke erabili administrazioarekin gure hizkuntza, legeak aitortzen digun gisan), batzuek gorrotoa garatu dute. Euskaldunok hizkuntza bakarra dakitenak diskriminatzen omen ditugu, “bizepsak whatsapp” edo “bihozkadak batukada” diskriminatzen duten eran (Angel Erro, handia!). Izan ere, EAEko-administrazioan-funtzionario-bihurtzeko-giza-eskubide-unibertsala urratzen omen da.

Horrek egoera eskizofreniko bat sortu du. EAEn

jaiotakoen gehien-gehiengoa orain jada D eredura bidaltzen dute gurasoek, funtzionario-izateko-eskubide-unibertsal balizkoa gal ez dezaten. Baina bai gurasoak eta bai haurrak, hizkuntza eredu horren aurka daude eta euskaraz ez hitz egiteko ahalegin berezia egiten dute. Baditugu euskararen aurkako euskaldunak berriro, aspaldiko partez. Eredu linguistikoen hezkuntza sistema iritsi zen bere gailurrera. Jada ez du balio.

Bestalde, azken bi hamarkadotan gero eta gehiago dira gainontzeko kontinenteetatik iritsitakoak. Horiengaz egoera ere berezi xamarra da EAEn. Etxean hizkuntza bat (urdua, arabiera, guarania, ingelesa...), kalean beste bat (gaztelera, ez bada herri euskaldunenetan) eta eskolan euskara. Gainera, ingelesa eta are frantsesa edo alemana ere. Azkarrak badira edo etxean laguntza handia badute, bapo. Bestela, akabo. Gainera, eskola kontzertatuan (eskola sarearen erdia EAEn!!!) xahutzen den diru publikoak, beharrezko baliabiderik gabe uzten du eskola publikoa, bertan maila sozioekonomiko apaleko haur eta gazteak pilotzen diren bitartean.

Estatus autonomiko berriaren gainera eztabaidaren unean, lehen lerroan ezarri behar da EAEko hezkuntza sistema, bertan gurtzatzen baitira eredu autonomikoaren mugak, euskalgintzaren erronkak eta auzi sozioekonomikoa: euskara maila eta maila akademikoa (ez baitira gai ikasle asko euskaraz lan egiteko) behera doaz modu azeleratuan. Euskarak 1970ko hamarkadako inertziaren irudi ona galdu du jendartearen zati handi batean eta inoiz baino testuinguru eleaniztunago batean gaude. Egoera horretara berregokitu behar ditugu lehenbailehen hezkuntza sistema eta, aldi berean, gure proiektu nazionala bera ere. •



Ilustrazioa: Jonbi EGURZEGI

{ koaderno } **Joana Garmendia**

Epaileak, apaizak eta maitagarriak Bolivian

Egun hauetan nonbait irakurri dut Europarlamentuak, EAJren eta beste batzuen laguntzaz, erabaki duela Bolivian ez dela estatu kolperik gertatu. Alegia, Bolivian gertatutakoa –zerbait gertatu baita– ez dela estatu kolpea izan. Aditz arraroa iruditu zait albistearen berri emateko. Gertatu den zerbait zer izan den erabaki dezake inork?

Kazetariak esan nahi zuena izango zen, nik uste, Europarlamentuak erabaki duela Bolivian gertatutakoari ez diola “estatu kolpe” irizten, eta ez diola izen hori emango. Eta izen bat edo bestea ematearekin, ematen du gertatu dena gauza bat edo beste bihur dezakeela –makila magikorekin maitagarri batek nola–. Europarlamentariak erabaki dute gertatutakoari ez diotela “estatu kolpe” esango, eta, ttak, gertatu zena, dena delakoa ere, ez da estatu kolpe izan.

Hizkuntzarekin gauza asko egin daitezke, hitzek badute boterarik, baina, gertatua den zerbaiten izaerari eragitea, ez ote doan botere horretatik harago.

Gure gizartean badira hizketa-ekintza batzuk errealtatean bereziki eragiten dutenak. Adibidez, herriko alkatetik “Senar-emazte izendatzen zaituztet” esaten duenean, hori esatea bera da aurrean duen bikotea senar-emazte egiten duena. Edo, sinestunen seme-alabak urez busti eta apaizak “Zure izena Gorka da” esaten duenean, hori esatea bera da haurrari bizi guztirako izena ematen diona –ahantz ditzagun, gaurkoagatik, esaldi horiek esan eta gero bete behar diren agiri eta paper guztiak–. Ezin du edonork halakorik egin, ordea: ezin joan naiteke kalean oihuka inguruan ditudan guztiak elkarrekin ezkontzen, edo jendeari izena aldatzen, zergatik eta “Senar-emazte izendatzen zaituztet!” edo “Zure izena Maite da!” esan diedalako. Jende arruntaren makilek ez dute magiarik egiten.

Europarlamentuan izena erabaki diote Bolivian gertatutakoari, baina ez dira apaiz-lan hutsean geratu: ez du-

te, edo ez soilik, hemendik aurrera gertaera horri nola esango diogun adostu nahi izan; gertatutakoaz zerbait adostu dute. Izena erabakitzearekin, zer gertatu den erabaki nahi izan dute.

Horrek antza gehiago du, akaso, epaileek egiten dutenarekin. Epailearen ardura da gertatu den zerbait zer izan den erabakitzea. Era batean edo bestean gertatu direnak bildu, lotu, zentzuz jantzi, eta zer osatzen duten erabaki behar du epaileak: lapurreta izan den, edo hilketa, edo jazarpena, edo zer bestela. Ondo pentsatuta, baina, epaileak, erabaki baino, argitu egiten du –egin nahi du, egin behar luke– gertatutakoa. Epailearen zurmila ez da makila magikoa, ezin dezake gertatutakoa zernahi bihurtu. Ezin dezake gertatutakoa erabaki. Egin dezakeena zera da, gertatu den zerbaiti, horrela-edo-honela gertatu denez eta hori dena argitua geratu denez, zer izen emango zaion erabaki. Eta, epaileen izen-emate horren atzean, bada zerbait potoloa gordea: “honi ‘lapurreta’ esango diogu”-k esan nahi du gertatutakoa lapurretatzat hartuko dugula; “horri ‘hiltzaile’ esango diogu”-k atzean duena da halako hari hiltzaileak merezi duena egingo diogula. Epailearen hitzek ezin dute gertatutakoa aldatu; epailearen hitzek, gertatuko dena bideratzen dute.

Europarlamentariak epaile-lanak egin dituzte. Ezin dute erabaki zer gertatu den Bolivian; erabaki dutena da nola esango dioten gertatu denari eta, bidenabar, nola jokatu duten han gertatutakoaren aurrean. Egunkari eta telebista askotan ere egin dute gauza bera, hartu dute erabaki hori –erabaki dute nola esan Bolivian gertatu denari, eta nola jokatu duten gertatutakoaren aurrean–; ez digute erabaki dutenik esan, ez digute erabakia- ren berri eman, baina ikusi dugu nola aplikatzen duten zintzo-zintzo.

Gauza bakarra ahaztu zaie europarlamentariei eta kazetariei: ez dira epaileak, ez dira apaizak, ez dira alkateak. Eta, bereziki, ez dute maitagarritik batere. •

Egunkari eta telebista askotan ere erabaki dute nola esan Bolivian gertatu denari, eta nola jokatu duten horren aurrean

«Nire buruari jarritako lana izan da aurretik norbaitek irekitako bideak pixka bat zabaltzea»

Hondarribia zoragarri dago. Turista bakan batzuk, arratsaldeko argia erortzen, aurpegia zapla jotzen duen hotz atsegina. Urrutitik, Kale Nagusian gora badatorrela iruditu zait. Baina turista baten tankera hartu diot atari baten parean geratu eta pixka batean begira egon denean. Gerturatu eta bai, Arantxa Urretabizkaia da. Begiratuan sumatu dit galdera. «Beti, hemendik pasatzen naizenean, geratu egiten naiz. Laugarren zenbaki horretatik atera ginen».

1996ko irailaren 8an, 26 emakume Hondarribiko alardea sartzen saiatu ziren. Zaharrenak 54 urte zituen, gazteenak, 21. Arnasa sakon hartu eta atera ziren ilaran. Kolpeka, irainka, ostikoka, bultzaka hartu zituen kale jendetsuak. Gorrotorik gabe kontatzen ditu ordukoak, baina bere ingurukoiegi egindako zenbait beste berrehun urtean ez dituela ahaztuko aitortu du.

Astelehenean Gipuzkoako Foru Aldundiak Antton Abadia saria emango dio. «Harrituta eta pozik» jasoko du. Aldunditik nabarmendu dutenez, euskararen normalizazioaren alde emandako pauso bakoitza eskertu nahi diote eta baita euskal literaturan emakumearen iruditegiari buelta eman izana ere. Euskara eta emakumea, bizitza oso bat ibiltzeko balio duten bi hanka.

Zein ederra dagoen Hondarribia. Bizitzeko toki ona al da?
Polita da, horretan ez dago zailtzarik. Urte oso txarrak pasatu ditugu. Lehen hamar ur-

ARANTXA URRETABIZKAIA KAZETARIA ETA IDAZLEA

Abenduaren 2an, Euskararen Egunaren bezperan, Antton Abadia saria jasoko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, euskararen eta parekidetasunaren bidean ibilitakoaren aitortpena jaso. Euskara batua sortzen ikusi zuen, kontatu ez den «prozesu itsusi» baten ondoren. Alardean emakumearen parte hartzea aldarrikatzeagatik jaso dituenak ez dira politagoak izan. Asko ikusiagatik eta ikasiagatik, aldarrikatzen duen eta bizitzen ari den zahartzaroan ikasteko asko duela sentitzen du oraindik.

Amagoia Mujika Telleria

teak oso txarrak izan ziren, gero, pixkanaka-pixkanaka, elurra urtzen den bezala, urtzen joan da. Oraindik ere topatzen ditugu aurpegi txarrak. Baina niri, pasatako guztiarekin, aurpegi txarrak ogi-puskak iruditzen zaizkit. Ezer esaten ez badute, aurpegi txarra jartzeak barregura ere ematen dit batzuetan. Ez zait inporta.

Orain ez zaizu inporta. Baina pasatu eta gero.
Guri denetarik egin digute. Guri egindako zenbait gauza izendatzeko ez zegoen hitzik. Pentsa, niri *escrache*-ak egin dizkirate etxean, oraindik hitz hori ezagutzen ez zenean. Baina, tira, ez dut gehiegi horretan pentsatu nahi, nahiko libre sentitzen naiz.

«Bidean ikasia» liburuan bada hotzikara sortzen duen pasarte bat. «Gehienek ez zera-maten belarritakorik, kontatu zigutelako Irunen bati baino gehiagori handik tira eginez zartatu ziotela belarriaren muturra. Esan nien ni ezin nintzela kalera belarritakorik gabe irten, baina nireek ez zutela arriskurik, klipekoak zirelako. Aspaldikoa dut belarritakoekiko zaletasuna eta arreta handiz aukeratu nituen galduz gero pena gutxiago emango zidatenak».
[Belarritakoak kendu eta mahaiaren gainean jarri ditu] Beti klipeko belarritakoak erabiltzen ditut. 1980 inguruan Indian egon nintzen. Hango leku batean, Rajastanen, emakumezkoek gainean eramaten zuten zeukaten aberastasun guztia, zilarra gehienez. Sekulako belarritakoak eramaten zituzten eta, pisuarekin, bela-

rriak zartatzen zitzaizkien. Gure amak ere zartatuak zituen belarriak. Hor hasi nintzen klipeko belarritakoak erabiltzen, ez nuelako belarriak zartatzetik nahi.

Gatozen alardeko egun horretara eta belarritakoaren arriskura. Latza.
Bai, oso bortitza eta latza izan da. Liburuarekin Euskal Herrian barna ibili naizenean, irakurle taldeekin, konturatu naiz jendea harritu egiten dela. Guk bagenekien mugak genituela gertatzen ari zena gizarteratzeko eta jendea oraindik harritzea horren seinale da. Eta oraindik ere gertatzen dira erasoak, institutuan esaterako. Aurten bertan badira Batxilergoa egitera Hondarribitik kanpo joan direnak, hemen eraso egin dietelako.
Liburua idaztera animatu nintzen konbentzitura nagoe-lako badugula joera desberdin pentsatzen duena etsai bihurtzeko eta etsaiarekin krudelak izateko. Hemen alardearen inguruan gertatzen da, baina beste toki batzuetan gertatu izan da zaborra nola sailkatu eztabaidatu denean; edo beste herri batean bi traineru daudelako edo beste batean bi ikastola daudelako, edo bi dantza talde...
Ni ez naiz inoren etsaia, baina batzuek etsaitzat naukate.

Erretiroa hartzeko adina izanagatik, lanean ari zara.
Bai, astean behin Bilbora joaten naiz, Euskal Telebistara. Gainontzean, Euskadi Irratian, Radio Euskadin, “El Diario Vasco”-n eta “El Correo”-n kolaboratzen dut. Horrela daramat ia 40 urte, kolaboratzaile bezala, eskatzen didatena egiten.

“Egin” egunkarian hasi nintzen kazetari bezala eta han erredakzioan egon nintzen. Eta, gero, “Ere” izeneko astekari batean ere erredakzioan egon nintzen. Baina, geroztik, kolaboratzaile nabil.

Gustura? Aske?

Bai, aske bai. Badakit orain askorentzat helburu bat bihurtu dela egonkortasuna eta segurtasuna. Nik ez dut sekula izan grina hori eta aske sentitzen naiz. Badakit jubilazio hobea izango nukeela beste bide bat hartu izan banu, baina pozik nago egindako hauarekin.

Nik ahizpa daukat, urtebete-ko aldearekin eta, 16-17 urte izan arte, ondo-ondoan egon gara. Bere helburua izan da lan batean hasi eta lan horretan jubilatzea. Eta lortu du. Eta orain nik daukadan jubilazioa baino hiruzpalau aldiz gehiago izango du. Beretzat zoriona hori da. Nire anaia berdin, lanean hasi zen toki berean jubilatuta da.

Ni ere horretarako hezi ninduten, gure amak horixe egin zuelako. 18 urterekin lanean hasi eta hirurogeitaka urterekin lantoki berean jubilatuta zen. Hori da nire ingurua, gurasoek ni horretara bideratzen ninduten, baina ni horretatik urrunduta egin naiz. Ez nuen nire burua ikusten bizimodu mota horretan.

Korrontearen kontrakoa eta kaskagorria?

Akaso izango naiz kaskagorria. Ni harrituta egiten naiz batzuek seme-alabak bideratzeko duten gaitasunarekin. Nirekin gurasoek ez zuten lortu. Aita goizegi hil zen, nik 20 urte nituela, justu Batxilergoa egiten ari nintzela. Amak nahiago luke beste bide bat hartu izan banu, baina



Argazkiak: Andoni CANELLADA | FOKU

IBILBIDEA

Donostiako Egia auzoan jaioa (1947), bizitza erdia baino gehiago darama Hondarribian. Bere lan literarioen artean daude «Zergatik, Panpox» (1979), «Koaderno gorria» (1998), «3 Mariak» (2010), «Zuri-beltzeko argazkiak» (2014) edota «Bidean ikasia» (2016).



gure ama oso tolerantia zen, ez zen oso interbentzionista. Nik hori berarengandik jasotzen dut.

Antton Abadia saria eman-go dizute, besteren artean, euskararen normalizazioan egin duzun lanagatik. Donostiako Egia auzoan jaioa, euskaraz hazi al zinen?

Niretzat euskara, 16-17 urte bitartera arte, ahozko hizkuntza izan da, etxean jaso. Liburu bakarra zegoen gure etxean eta oraindik gordea daukat. Ni oso irakurlea izan naiz, baina gaztelaraz irakurtzen nuen eta euskara ahozko hizkuntza zen niretzat. Gero ahizpa eta biok joan ginen Donostiako Kontserbatoriora. Maria Dolores Agirrek alfabetatzeko klaseak ematen zi-

tuen. Gipuzkeraz alfabetatuta ginen 17-18 urte genituela. Orduan ikasi genuen hitzak ebakitzeko eta...

Euskara batua sortzen ikusi duzu.

Bai, baina nire meritu bakarra Gabriel Arestik eta Ibon Sarasolak arrazoia zutela ulertu izana da. Bidea hori zela eta haiek markatutako bidetik joango nintzela erabaki nuen. Garai oso itsusiak egon ziren, kontatu ez direnak. Azkeneko argazkian oso dotore agertzen gara, baina bidean gauza oso itsusiak gertatu ziren.

Duela bizpahiru urte elkarriketa batzuk egin nituen euskara batuaren inguruko hitzaldi baterako. [Carlos] Garai-koetxeak berak kontatu zidanez, garai hartan zentzuzkoak

ziren zenbait pertsonak esaten zioten “h”-a komunista zela. Pentsa.

Ni bi lanetatik bota ninduten “h”-aren alde egiteagatik. Eta niretzat une hartan lana oso beharrezkoa zen. Etxean lau lagun eta bi soldata zeuden, amarena eta nirea. Nire auzoko ikastolan hasi nintzen irakasle bezala lanean. Halako batean deitu zidaten eta nik egokitutako liburu bat atera zidaten mahaiaren gainera. Euskara batura egokituta zegoen liburu hura. Lanetik bota ninduten horregatik. Momentu hartan Gipuzkoan toki batean baino gehiagotan bota ziztuzten andereñoak euskara batuaren alde egiteagatik. Batzuk elkartu eta epaitegira eramanez, garai hartan zentzuzkoak

ezagutzen nituen–, epaiketan esan zuten ez nintzela sekula azaldu klasea ematera eta horregatik bota nindutela. Eta nik ez neukan kontrakoa esateko lekukorik.

Hurrengo urtean Lezoko ikastolara joan nintzen irakasle bezala. Lanean hasi eta hamar bat egunera kalera nindotala esan zidaten. Bailarako bilera bat egin zuten eta han norbaitek esan omen zuen ni Egiako ikastolatik bota nindutela euskara batuaren alde egiteagatik. Eta Lezon gauza bera egitea erabaki zuten. Akordatzten naiz nirekin zegoen mutiko baten amari esan niola, «baina zure semea nirekin dago gelan, zer kalte egin diot nik?». Ez zait sekula ahaztuko ama hark esan zidana: «Hori da okerreña. Zuk hazia bota eta ez da igartzen. Baina gero hazi hori handitu egingo da». Bigarren txanda hartan, lanik gabe geratu nintzenean berriz, Ibon Sarasolak eman zidan lana hiztegian. Eskertzen diot, bestela akaso irakaskuntzan segituko nuen eta beste bide bat ibiliko nuen.

Nik uste nuen hori izango zela gerora, zahartzean, kontatuko nuen pasadizoa. Ez nekien zen gero, alardearekin, beste pasadizo batzuk izango nituela kontatzeko.

Badituzte parekotasunak euskara batuaren inguruko eztabaidak eta alardearekin ingurukoak.

Bai, badituzte. Hor ez zegoen Franco errua botatzeko, gure arteko liskarrak dira. Gero, denborarekin, ikusi ditut lotura horiek. Baina euskararen batasuna oso prozesu itsusia izan zen. Orain, berrogeita hamargarren urteurrenean, arrazoia genuela sentitzen dut eta eskertuko nuke norbaitek



onartuko balu euskara batuaren kontrako jarrera horietan pasatu egin zirela.

Emakume bakarra zinen.

Bai. Baina ez nion garrantzirik ematen. Ohartzen nintzen bakarra nintzela, baina ez nintzen deseroso sentitzen. Nik idatzi egin nahi nuen. Txikitatik emakumeek idatzitako ha-

maika liburu irakurri nituen eta banekien ez nintzela ezer arraroa egiten ari. Neska koskorretan emakumeen liburu mordoak irakurriak nituen eta 20 urte nituenerako baneukan literatur kultura pixka bat, frantsesa batez ere. Giro hartan ni ez nintzen gutxietsia sentitzen, nik gutxiesten nuen nire burua, beraiek nik baino

gehiago zekitelako gauza askori buruz. Baina beti izan dut konfiantza nire ikasteko gaitasunean, eta hori aitari zor diot. Konfiantza hori ez dut galdu oraindik.

Ordurako ni lanean ari nintzen. Erizaina izan naiz urte askoan, kirofano batean lan egin dut. Bidean ikasi nuen ofizioa, orduan gauzak desber-

dinak ziren. Gurutze Gorriko dama izan nintzen, baditut argazkiak. Eta kirofanoa utzi nuen andereño izateko. Baina gustatzen zitzaidan kirofano-ko lana eta oraindik ezaguera pixka bat badaukat.

Bidean ikasia, dena.

Bai, ez neukan beste erremediorik. Niri gustatuko litzaida-ke beste askok ikasi duten bezala ikastea, horretara bakarrik jarrita. Nik beti zirrikituetatik ikasi behar izan dut, lanak utzitako tarteetan. Lana egin behar zen etxera soldata eramateko, ama oso gazte alar- gun geratu zelako.

Ikasteko grinaz segitzen du- zu?

Bai, hori ez da galdu behar. Horretara joan nintzen Duran- goko jardunaldi feministetara, ikastera.

Entzuna dizut faltan sumatu zenuela «zaharren» ahotsa.

Bai. Baina, zergatik ez ziren jo- an? Nik izena eman nuenean ez zidaten esan ezin nuela jo- an zaharregia naizelako. Baina, bestetik, zahartzaroari buruz- ko hausnarketa bat falta da fe- minismotik. Gorputza aipa- tzen denean ere, gazteen gorputza hartzen da kontuan; sexualitatea, erreprodukzioa... eta, zaharren gorputza, zer? Zaharrak aipatzen direnean, gehienetan, subjektu pasibo bezala aipatzen dira, zaindu behar diren subjektuak bezala. Nik zahar errebeldea izan nahi dut.

Zahartzaroak toki eskasa dauka gure jendartean.

Bai, baina hori gure belaunal- diaren errua da, garbi daukat. Gu gazteak ginenean bizitza- ren gailurra helduaroa zen eta gazteak helduarora iristeko

*«Oraingo
feminismoa oso
fisikoa da, asko
erreparatzen zaio
gorputzari eta sexu
jarduerari garrantzi
handia ematen
zaio, modu
esentzialista batean.
Zure jarduera
sexualak ez zaitu
osoki definitzen»*

ikasten ari ginen. Gure belau-
naldiak, 68ko belaunaldiak,
gailurra ez zegoela helduaroan
aldarrikatu zuen, gailurra gaz-
taroan zegoela. Eta orain ideia
hori bumeran bat bezala etorri
zaigu bueltan. Hortik dator
hainbeste gizon eta emaku-
mek –batez ere emakumek–
gazte itxura mantentzeko dau-
katen irrika patetiko hori.

Nik “zahar” hitza aldarrika-
tzen dut. Ni zaharra naiz eta ez
dut barkamenik eskatzen za-
hartzarora iritsi naizelako. 72
urte ditut eta zaharra naiz,
noiz egiten da ba bat zaharra?
Zahartzaroa tabu bat da.

Nolakoa da zure zahartzaroa?

Aktiboa. Nik ez dut atzera begi-
ra bizi nahi, aurrera begira bizi
nahi dut. Gure tradizioan za-
harrak zeuden irakasteko, ikasi
beharreko guztia ikasia zutela-
koan. Nik ez dut ikasi ikasi be-
har nuen guztia eta oraindik
ikasteko grina daukat. Belau-
naldi pare batean, asko aldatu
da kontua. Lehen, zaharrek
zeukaten jakinduria, baina,
orain, gazteek irakasten dizki-
gute gauza asko eta, gainera,
zaharrek dakizkigun gauza as-
kok dagoeneko ez dute ezerta-
rako balio.

**Durangoko jardunaldi femi-
nistetara bakarrik joan zinen,
lotarako zakua hartuta, ikas-
teko grinaz. Zer ikasi zenuen?**

Hausnartzen ari naiz oraindik.
Batetik, zahartzaroaren falta
hori igarri nuen. Bestetik,
oraingo feminismoa oso fisi-
koa da, asko erreparatzen zaio
gorputzari eta sexu jarduerari
garrantzi handia ematen zaio,
modu esentzialista batean.
“Nire jarduera sexuala hau da,
beraz, ni hau naiz”. Adibidez,
“ni lesbiana naiz”. Hortik apar-
te? Aberatsa zara? Pobrea? Au-
rrerakoia? Atzerakoia? Tole-

rantea? Fundamentalista? Nik
gauza gehiago jakin nahi ditut,
zure jarduera sexualak ez zai-
tu osoki definitzen. Iruditzen
zait hor karga gehiegi ematen
zaiola jarduera sexualari.

Hala ere, Durangon ez zego-
en mugimendu feminista. Du-
rangon mugimendu feminis-
taren abangoardia zegoen.
Hori oso kontuan izan behar
da. Orain askotan esaten da ga-
rai bateko balioak galdu egin
direla. Baina, zein balio ziren
horiek? Boteretsuarekiko
mendekotasuna –polizia, mili-
tarrak, Franco...–; desberdina
baztertzea –gorputz desberdi-
nak, familia eredu desberdi-
nak...–; elizarekiko mendekota-
suna... Horiek dira nik ikasi
nituen balioak. Horiek gorde
behar al ditugu? Ba, ez. Nik bi-
zitzaren parte handi bat pasa-
tu dut txikitan ikasitakoa baz-

tertzen, desikasten, eta orain-
dik ikasteko asko daukat.

Horregatik, esaten denean
atzera goazela, gaurko gehien-
goa garai bateko abangoardia-
rekin konparatzen delako esa-
ten da. Horrek ez du balio.
Garai bateko orokortasuna
gaur egungo orokortasunare-
kin konparatu behar da eta
hor ez dugu atzera egin. Akaso
garai bateko abangoardiek de-
fendatzen zutena ez da orain-
dik bete edo akaso orokortasu-
nak ez ditu ideia denak jaso.
Baina abangoardiak abangoar-
diekin konparatu behar dira.

**Bide onetik ikusten duzu ola-
tu feminista hau?**

Bai. Niretzat hirugarren ola-
tua. Mareak behera egingo du
halako batean, baina itsasoak
beti jarraituko du hor, ez da
desagertuko.

**Orain errazagoa litzateke
alardean eman zenuten pau-
so hura ematea?**

Nik uste dut berandu hasi gi-
nela. Trantsizioan hasi izan ba-
gina, orduan dena zen aldaga-
rri. Baina horrek gero kontrako
erreakzio bat ekarri zuen eta
gu erreakzio horren garaian ai-
legatu ginen.

Berriro egingo zenuke?

Momenturik okerrenetan
etxean esan izan dut San Pe-
dro kalean jarriko nintzela
“Damutzen naiz” dioen pan-
karta batekin, baldin eta ho-
rrekin etxekoentzat bakea lor-
tuko banu. Baina etxean hori
esanda ez didate sinisten.

Baina nik ez dut ezer asma-
tu, ez euskararen batasunean
ezta emakumeen aldeko bo-
rrokan ere. Norbaitek egin
zuen lehenengo bidea, sasiak
kendu eta bidea irekiz. Nire
buruari jarritako lana da bide
hori ahal den neurrian pitin
bat zabaltzea eta, ahal dela,
oso aldapa gora izan beharre-
an, pixka bat samurtzea. Baina
bidea ez dut nik asmatu, beste
batzuek irekitako bidea sa-
murtzen saiatu naiz.

**Sexu ahularen etiketa zama-
tsua asmatu zuenak...**

Gezur handi bat da. Baina mo-
mentu honetan emakumeak
ez ditugu gauza asko egiten ez
debekatuak daudelako, ausar-
tzen ez garelako baizik. Heldu
da ausartzeko momentua, au-
sardia oinarritzeko da. Etsaia ez
dago kanpoan bakarrik, ba-
rruan ere badago.

**Badaukazu proiekturen bat
esku artean?**

Badaukat, bai, nobela batekin
ari naiz. Akaso nire azken libu-
rua idatzia dago, baina gusta-
tuko litzaidake beste bat idaz-
tea.





Jagoba MANTEROLA | FOKU

IKUSMIRA

GUK SINESTEN ZAITUGU. ZUK?

Abuztuan Plácido Domingo tenorearen alde agertu zen publikoki Ainhoa Arteta opera kantari tolosarra. Kasik hamar emakumek salatu zuten Domingok sexu erasoa egin ziela eta Artetak ez zuen zalantzarik egin «kasik familiakoa» duen tenorearen defentsan ahotsa altxatzeko. «Ez dakit maitasun jolasetan edota ligatzen aritu ote den. Gauza horiek lehen egiten ziren eta orain ere egiten dira. Baina badakit ez dela eraso-tzaile bat, eskua sutan jarriko nuke». Irailean, telebistan eskainitako elkarrizketa batean, bere bizitzako unerik latzena publiko egin zuen: 25 urte zituela bortxatu egin zuten. Sinistu egin genion, zalantzarik gabe. Nahiz eta berak hilabete batzuk lehenago beste emakume batzuen kontaketa zalantzan jarri, guk sinistu egin genion. Tamalez, indarkeria matxistak denok zeharkatzen gaitu, mina emateraino. Pobreak eta aberatsak, hangoak eta hemengoak, lokatz berdinetan harrapatuta gaude. Eta nahiz eta askotan emakumeak oso inuzenteak dirudigun, ederki dakigu zer den maitasun jolasa eta zer ez. Bai, Ainhoa, guk ez dugu zure hitza zalantzan jartzen, baina gustura esango genizkizuke bi hitz. Eta akaso builaka, haserrarazi egin gaituzulako. Argazkian ageri den emakumeak ez zuen aukera galdu pasa den azaroaren 25ean, indarkeria matxistaren kontra kalera atera zenean. Zer esan ote zion? Amagoia Mujika Telleria

Liburuak

Joxean Agirre

Bada Che Guevararen argazki mitiko bat Boliviako oihanean zuhaitz baten gainera igota liburu bat irakurtzen ageri duena. Armak eskuetan dituztela ibili dira egun osoan batetik bestera eta arratsean bere kideengandik apartatu eta liburuan murgiltzen da.

Ez dago argazkirik, baina bada antzeko irudi bat Koldo Mitxelena gaztearena. Bizkaiko fronteetako lubaki batean dago eta gerrak izaten dituen atsedenaldiru luzeetan Lizardiren poema bilduma atera eta irakurtzen ari da. Gerrara boluntario joan aurretik latinezko gramatika bat eta Lizardi sartu zituen zakutoan.

Sarrionandiak bost urte eman zituen espetxean eta ez dago, noski, argazkirik (gerora ere ez zen izan haren argazkirik beste hogeita hamar urtean), baina hura

irudikatzen hasita, liburu bat irakurtzen irudika genezake.

Badut irudi bat neureagoa, nerabea nintzenekoa. Aitona zahartu eta abaildu egin zen, lanerako gauza ez zela geratu zen eta uda oso batez ia arratsero irakurketa saio bat egiten genuen. Tomas Agirre *Barrenso*-ren “Uztaro” (geroztik nobela hau desagertu egin da euskal literatura-tik), Txomin Agirreren “Garoa” eta Etxaideren “Joanak joan” irakurri nizekion. Isilik egoten zen urrunera begira. Orixeren “Euskaldunak” ekarriz gero, haserretu egiten zen eta “Orain ere horrekin al hartor?”, kexatzen zitzaidan.

Gaztetan behinola hondartzan nengoe-la neska bat eseri zen nigandik metro batzuetara eta Max Frischen nobela bat poltsatik atera eta irakurtzen hasi zen. Nik buruz nekien nobela hori. Zirrara bat sen-

titu nuen barrenean, maitasunaren ernamuina izan zitekeena.

Azken orduko beste irudi bat. Gorka Urbizuk bukatu du Berri Txarrak-en agurreko itzulua eta Lekunberriko bere etxean gorde da. Besaulki batean, gainetik manta bat duela, irudika dezaket jarraitzaileek azken kontzertuan (hala eskatu zuen elkarrizketa batean) oparitutako liburuetako bat irakurtzen.

Egun batzuk barru gara Durangon. Gustatzen zait salmahaietan liburu bat irekita eskuetan duen jendearen aurpegietara begira egotea. Leiho batera gerturatu eta munduari begira daudela ematen du edo gure baitako bazter miresgarrietara. Chek, Mitxelena gazteak, Sarrik, aitonak, nire neskak edo Urbizuk jartzen zuten edo duten aurpegi beretsua dute. •

Memoria selektiboa

Nekane Zinkunegi
Barandiaran

Azaroaren 25aren bueltan, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, Helena Tabernaren “Nagore” dokumentala ikusteko aukera izan dut. Ondorengo egunetan, horrek utzitako gorputzaldia kudeatzen ari nintzela, izan dut Voxeko idazkari nagusi Javier Ortega Smithek Madrilen esandakoen berri. Besteak beste, ukatu egin du matxismoa, genero indarkeriaren aurkako legedia bertan behera uzteko eskatu du, emakumeon segurtasunik ezaren erantzule mi-

granteak egin ditu eta “txiringito feministek” dirulaguntzak jasotzea salatu du.

Dokumentalean, ikusi nuen epaiketan nola esaten zioten Nagore Laffageren hiltzaileari gezurra esateko eskubidea zuela, bere burua defendatzeko egoki irizten bazion. Eta ikusi nuen, hilketa unea birsortzerakoan, erasotzaileak zeinen argi orotzen zituen egindako ekintza batzuk, eta nola bere memorian ez zen beste galdera batzuei erantzuteko arrastorik geratu.

Aurtengo sanferminetan, 11 urte bete dira Diego Yllanek Laffage erail zuene-

tik. Hamarkada bat baino gehiago igarota ikusi dut dokumentala. Baina seguru nago urte hauetan guztietan zenbaitek oso gogoan izan dutela gertatu zena, gertatuak eragin ziena. Eta ez nuke ahazterik nahi, ez hura ezta Ortega Smithek eta haren konpainiak esaten dituztenak ere. Us-tezko demokrazia berdinazale honetan, ideia guztiak zilegi diren falazia sartu digutelako buruan, eta, astakeriek itsutzen gaituztenean, egunerokoan jasaten dugun zapalkuntza isila oharkabea gertatzen zaigulako. •



> Errekondori eskua emateko entsegua



Iñigo URIZ | FOKU

Ez da txantxa, erridikulua baizik. Jose Bono Espainiako Kongresuko presidente ohiak argitaratu berri duen liburuan dioenez, Juan Carlos Borbonek berekin entseatu zuen Xabier Mikel Errekondo Amaiurko di-



putatuari eskua nola eman, nahikoa serio agertu nahi zuen eta.

2011ko abenduaren 15ean, errege espainiarrak euskal ezker independentistako ordezkari bat hartu behar zuen, 1193an

Jon Idigoras hartu behar izan zuenetik lehen aldiz. Ordezkarri hura Xabier Mikel Errekondo izan zen.

Harrera hura baino lehen, ordea, Juan Carlos Borbonen entsegu erridikulua izan zen. Bonok kontatu duenez, esku-emate hark kezkatuta zeukan erregea eta nola egin entseatu beharra zeukala pentsatu zuen. Hartarako, Bonori laguntza eskatu zion.

Hauteskunde onorengo bilera batean, «erregeak esan zidan Amaiur koalizio nazionalistako diputatuak hartuko zituela, baina konstituzio aginduz baino ez ziela kasu egingo. Seriotasunez hartzeko gomendioa eman nion, keinu serio batez eskua emanez. Orduan, altxatu eta eskua nola eman behar zien ikusteko entsegua egin genezala esan zidan erregeak, eta hala egin genuen. Laiñoa da eta, beste alde batetik, konfiantza erakuslea erregeak hau esatea: ‘Begira ie-zadazu aurpegira, ea eskua luzatzen dizudan bitartean serio nagoen, zu haietako bat bazina bezala’».



> Berri Txarrak taldearen agurraren osteko erreakzioak

Sare sozialak Berri Txarrak taldearen agurraren lekuko izan dira. Lagun ugari agertu dute bertan Lekunberriko taldearen azken kontzertuaren ondoren bururatu zaiena. Batzuek penaz eta beste batzuek umorez, zenbaitek azkenengo kontzertua eta beste zenbaitek taldearekiko beren fanatismoaren jatorria gogoratuz. Hara erre-



akzio horien pare bat lagin:

–«Geurko egune ikusitze ta musikientzako ain egun triste izenda 23-N BERRI TXARRAKen egune bedeinkatzen dot».

–«Mila esker nire nerabezaroa errazagoa egiteagatik, zuen hitz bakoitzak bihotza arindu dit. Laster arte hirukote, nire bihotzean eta azalean eramango zaituztet beti».



> Joan den osteguneko ikasle grebaren iragarpena



Euskal Herriko ikasleak, berri-
z ere, kalera irten ziren ostegunean. Ikoitzen Arkatza
blogak grebaren iragarpena-
ren berri eman zuen. «Greba
orokorra deitu dute, eta,
oraingoa, hezkuntza siste-
ma propioa izango dute alda-
rrikapen nagusia. Euskal He-
rriko hiriburuetan egingo
dituzte manifestazio nugu-
siak: Baiona, Bilbo, Donostia,
Gasteiz eta Iruñean».



Ikasleek sareetan zabaldua-
ko mezuak agertzen ditu blo-
gak: «Ikasleak erdigunean
izango dituen hezkuntza siste-
ma nazional, publiko, komuni-
tario, euskaldun eta feminista
bat eraiki nahi badugu, fran-
tziar zein espainiar estatueta-
tik askatzen garenean baino ez
dugulako lortuko adierazi du-
te ikasleek». Eta haien salaketa
ageri den hainbat bideo ikus-
gai jarri zituen.

> Euskal Selekzioko 13. zenbakiarekin... Lula da Silva

Lula da Silva Brasilgo presi-
dente ohia futbolzale handia
da. Sareetan munduko beste
buruzagi batzuei *canarinha*-
ren elastikoa oparitzen ager-
tzen den argazkiak topatzea ez
da zaila.

2014an Bilbora etorri zen
Iberdrolako exekutiboan ba-
tzar batean parte hartzeko, eta
San Mames futbol zelaia ere
bisitatu zuen. Bertan, Athleti-
ceko sasoiko presidente Josu
Urrutiak elastiko zuri-gorria
oparitu zion.



Duela egun batzuk, Lula da
Silvak handitu egin du bere
elastiko bilduma, Euskal Sele-
kzioaren elastiko batekin, bilera
batean oparitu baitiote. NAIZek
jakin duenez, elkartze horretan
parte hartu zuen ondarroar ba-
tek hiru koloreko kamiseta en-
kargatu zuen bidaia egin baino
lehen. Elastikoak 13. zenbakia
eta Brasilgo agintari ohiaren
izena ditu atzealdean. Lulak ez
zuen eragozpenik izan ozeanoa
zeharkatu duen argazkian elas-
tikoarekin agertzeko.



> Zea Maysek «Kea» kantaren bideoklipa aurkeztu du

Musika nobedade ugariren
berri eman ohi du NAIZ+ ata-
riak, denak ere klik batez
ikusgai daudela. Horietako
bat, egunotakoa, Zea Mays
taldeak bere azken bilduma
iragartzeko aurkeztutako
«Kea» bideoklipa.

«Atera» izena jarri dio Zea
Mays Bilboko taldeak lan be-
rriari. Hasierako lau taldeki-



deek –Asier Basabe baterian,
Ruben Gonzalez baxuan, Iña-
ki Imaz *Piti* gitarretan eta
Aiora Renteria ahotsean– ja-
rraitzen dute taldean, eta ha-
sierako gogoia eta askoz espe-
rientzia gehiago gehitu dute
urteotan guztiotan. Hori guz-
tia islatu dute publiko egin
duten lehen bideoklipean,
«Kea».



Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Mugikorrarekin gora eta behera

Adin txikikoak aro digitala-
ren erdian hazi dira, ez dute
off eta *on* bizitzarik bereizten,
dena baita beraien burua eta
jarduna erakusteko pasarela.
Bideo jokoetan jolasteko, mu-
sika entzuteko, ikasteko, lagu-
nekin komunikatzeko.... horre-
tarako erabiltzen dituzte
gailuak gehienbat, eta pentsa-
tzeko modukoa da horrek guz-
tiak bizitza pertsonalean eta
sozialean aurki izango dituen
ondorioak. Izan ere, digitaliza-
zioak bizitzari abiadura berri
bat txertatu dio, erritmo eroa.
Pantailan dena egiten da az-
kar; *like*, *not like*, bideoa hasi
eta buka aldi berean, hainbat
leiho/foku irekita gehiegi pen-
tsatu gabe... Ematen du ez da-
goela denborarik gauzak be-
har den moduan ikusteko,
entzuteko, dastatzeko... Garai
bateko atentzioa, sendoa eta
bakarra, hainbat leihotxotan sakabanatu da, eta han-he-
menka gabilta gure apeta guztiak ase nahian.

Eta mugikorraren erabilera-adinari dagokionez, zer esan? Horretan asmatzea ere ez da erronka makala. Adin txikiko-en garapen integrala –alegia, garapen emozional, afektibo eta kognitibo– bizitzaren hastapenetik bertatik hasten da eta gizon-emakumeok “formateatuta” gaude atxikimendu fisikotik, zuzeneko hartu-emanetik, eraikitzeko. Horretan gurasoekiko harreman osasuntsua eraikitzeak erabateko garrantzia izango du gero indibidualizazio-prozesuan. Beraz, prozesu horren etapa gehienetan pantailen presentzia gero eta gehiago nagusitzen bada... zer-nolako eragina izango du horrek? Zer-nolako desorekak ager daitezke? Zer-nolako es-



Mugikorren erabilerak osasun pertsonal eta sozialean eragiten du. GAUR8

tutasun ezezagunak? Ikertzaile batzuen aburuz, pantaila-abusuak haurrengan duen eragina ikerketa esparru berri eta eztabaidagarria da oraindik, baina ematen du ondoriorik baduela garapen kognitiboan. Familiak asko egin dezake, jakina. XXI. mendeko gurasoen erantzunkidetasuna da mundu digitalen trebatzea, esparru inposatzaile eta interesez jositakoa bezala ikusi arren. Baina eskola da, hezkuntza sistema orokorrean, gizarte batek zaindu, hornitu, indartu behar duena, eta bertan etxeko lan ugari ditugu, irakasleek, ikasleek eta gurasoek.

Zientziari heldu behar-ko diogu, egiten diren ganorazko ikerketei, horretan asmatzeko. Nolanahi ere, irudipe-na daukat adin-muga bat jartzeak erabateko eztabaida sortuko lu-keela, denok txunditu-ta eta salduta gaudela-ko teknologiarekin.

Izan ere, ia guztiok teknologiak eskaintzen digun festa ero horretan parte hartu dugu hasieratik izango dituen ondorio txarrak (onenetan ados gaude) kontuan hartu gabe. Teknologiak eraikitako espazio digitalak, horrenbestez, “Far West basati” baten modura funtzionatzen du egun, eta, gizartea, tartean gurasoak, bere mende daude. Horretan mugikorra ardatz bihurtu da, sakelakoa lanerako zein aisialdirako erabiltzen baitugu.

Adin txikikoen kasuan, gizarte/guraso/eskola moduan arazoak ditugu mugak ezartzerakoan. Nik ez dakit zein den mugikorra erabiltzen hasteko adin egokia. Baina osasun pertsonal eta sozialarekin lotutako zerbait denez, badugu zer hausnartu eta zer erabaki elkarrekin. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



BILDUMA PARTIKULARRA

BURGOSKO EPAIKETAREN AURKA, MONTSERRATEN ITXITA

1970eko abenduaren 3tik 9ra bitartean Burgosko Prozesua egin zuten hamasei euskal herritarren aurka. Bertan, tribunal militarrek bederatzi heriotza zigor eta bostehunetik gora kartzela urte ezarri zizkien akusatuei. Heriotza zigorrak konmutatu egin zizkieten, Euskal Herrian, Estatuan eta New York, Buenos Aires, Caracas eta beste hainbat hiritan izan ziren mobilizazio handiak zirela-eta, baita Europako eta Ameriketako zenbait gobernuren presioengatik ere. Epaiaketaren aurka protesta egiteko, abenduaren 12tik 14ra bitartean Montserraten itxialdi bat egin zuten 300 intelektualek. Han epaiaketaren aurkako agiri bat idatzi zuten, heriotza zigorra indargabetzea eta preso politikoentzat eta erbesteratuentzat amnistia eskatuz eta Euskal Herriarekiko eta haren aldarrikapenekiko atxikimendua agertuz. Besteak beste, Lluís Llach, Joan Miro, Antoni Tapies, Joan Manuel Serrat eta Nuria Espertek sinatu zuten agiria. Hiru egunen buruan, monasterioa Guardia Zibilak inguratuta zegoela, itxitakoak irten egin ziren Guardia Zibilaren eta monasterioko abadearen arteko negoziazioen ondoren. Argazkiak itxialdiko une bat islatzen du.

7^{haizetara}

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN SALGAI



Jordan Trail

Jordaniako oinezko zeharkaldia

650 kilometro, 40 egun eta 52 herri, Wadi Rum basamortuan hasi, planetako puntu baxueneraino jaitsi eta iparralde menditsurantz jarraiturik. Hauxe da Jordan Trail ibilbide kitzikagarria.

Eta gainera: Irlandako mendebaldeko itsaslabar • Jekaterinburgoko ibilbide gorria
• Zeelanda Berriko azken tontorreko badia ezkutuak • El Altoko «tenplu» aimarak...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^{haizetara}

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

